

## Bizkaiko Bertsolari Txapelketako Arratiako finala 4an Igorren

13. orrialdea

## Errotarik errota Zeanurin

Maiatzaren 4an izango da Joko Alai eta Ipizki Taldeak antolatutako Zeanuriko Erroten Ibilaldia. Bederatzigarren edizinoa beteko dau oinezko martxa honek aurten. Helburuak hasikerako berberak dira, batetik, hurreratzen diranai Zeanuri eta bere auzoak ezagutzera emotea; eta bestetik, herriko historian errota izan daben garrantzia ezagutarazotea. **12. orrialdea**



## Maiatzaren 4an pasauko da Arratiatik Rallystone 2014

10. orrialdea

TOKIKOM

# begitu

arratia ubide zeberio

# 207

2014ko maiatzaren 2a  
hamabostekaria  
www.begitu.org

## Lemoaztar bi egon dira *El Conquistador* ETBko saioan

Aprilaren atzen astean ikusi genduan *El Conquistador del fin del mundo* saioan "Antuan" lemoaztarra etxera itzuli behar zala.

Lemoako bi izan dira aurtengo edizinoan Iguazuko lehian: Andoni Ozerin "Antuan" eta Alberto Cerro "Leon". Ez da hau izan Leonek saio honetan parte hartzean dauan lehenengo aldia, bigarrena baino. Igazkoan be ikusi ahal izan genduan lemoaztarra Patagonian. BEGITU biakaz egon da zelan bizi izan daben esperientzia hau jakiteko.

Pozik atera dira biak eta muturreko esperientzia honek, norbere buruaren mugak jakiteko balio daua la dinoe. Urtean-urtean probak arrakastuagoak dira eta noraino helduko ete diran probak diseinetan dabezanak kezkatzen ditu partaideak.

Euskal Herriko edozein herritan kalekiko doazenean jentek ezagutzen ditu Antuan eta Leon. **8. eta 9. orrialdeak**



Andoni Ozerin "Antuan" eta Alberto Cerro "Leon" lemoaztarrak.

### ZEANURI

## Ganadu azokea San Isidro egunean

Ganadu azoka egingo da Zeanurin San Isidro egunean. Abere, Artisanu eta Nekazal Produktuen Azokearen XXXIII. edizinoa izango da aurtengoa. Urtero lez, ganaduak ikusi, saldu edo erosi leitez azoka honetan baina hurrengo ekintzak be egingo dira: ardiak eraitsi, gaztagintza, ardi mozketa lehiaketa eta arto dastaketa. Aurten oster, barrikuntza moduan, herrian sortu bari dan andra proba taldeak erakustaldia egingo dau. **5. orrialdea**



### ARRATIA

## Bertako enpleguaren aldeko manifestazinoa maiatzaren 1ean

Arratiako enplegu suntsiketea salatu, bertako enplegua defendidu eta Incoesari eta Alfuseri babesa emoteko, Bediafik Lemoaraino joan zan LABek deitutako maiatzaren 1eko manifestazinoa. Pankartearen atzean Incoesa eta Alfuseko beharginak eta manifestazino jentetsua atzetik. Bilboko manifestazinoan be egon ziran Arratiako beharginak, sindikatu guztiak deituta. **5. orrialdea**

**ZAZPI HAZIETARA** Euskal Herriko Produktuak **IGORREN ZABALIK!!!!!!**

Eguneroko produktuak  
Euskal Herri osotik  
ekarriak.  
Arratiko produktuak.  
Euskal jantziak.  
Artepitxiak.  
Ospakizunetarako  
detalleak.  
Oparitzeko otzarak.

**ZAZPI HAZIETARA** n gure ekoizle eta produktuen aldeko apustua egiten dogu. Gure leloa: **Gurea kontsumituz, geurea babestu!**

**Erdu zure eguneroko euskal produktuen txokora!!!**

AGIRRE LEHENDAKARIA 11, 48140 IGORRE  
zazpihazietara.arratia@gmail.com  
fnoa. 946319243

### AREATZA / ZEBERIO

## Santa Kurutze jaiak

Areatzako Santikurutz ermitan eta Zeberioko Santa Kurtzean maiatzeko jai hau ospatuko dabe. Antxinako jai hau ospatuteko elorri zuria bedeinkatu eta Helbarrengo konbidaduen bazkaria egingo dabe Zeberion. Hiru eguneko jai egitaraua antolatu dabe: Tortilla Txapelketa, herri kirolak eta kontzertuak, besteak beste.

Areatzan be, ohiturak erreperau guran, santikurutzeko ermitara bide zaharretik igoko dira maiatzaren 3an. **5. orrialdea**

**TRISKELA**  
Belardenda Telefonoa: 696 506 373  
Bekokale. Areatza  
triskelareatza@gmail.com

**ARRATIA ZURI-BALTZEAN****AITA URRABURU**

Juan Jose Urraburu Intxaurbe Zeanurin jaio zan, 1844ko urtean, Zurutuza ("Zutzute" edo "Zutuzte") izeneko baserrian. Herriko beste seme-alaba gazte askok lez Eleizearen bidea hartu eban, 1860. urtean Jesuita edo Josulagunen Ordenan sartuaz. Ikasketak amaitu ostean, irakasle izan zan: Frantzia aldean lehenengo, Poyane eta Saint Acheul-go ikasketexer elijiosoetan; gero, Loiolako Santutegiko kolegioan; Erromako Unibersidade Gregoriano ospetsuan be klaseak emon zituan bederatzit urtez. 1877. urtean Espainian egoan. Orduan, egoera politikoa nahastua zan, Bigarren

Karlistadea be amaitu barri egoalako. Aita Urraburu irakasle izateaz gain, agintari moduan, Oña (Burgos), Valladolid eta Salamancako kolegio erlijioso handietako kargu gorenara, hau da, erretorea izateko izentau eben.

Idazlea be izan zan. Bere lan erraldoia filosofia arloan oinarritu zan, orduko denporetan Eleiza Katolikoak irakasten eban Filosofia Eskolastikan hain zuzen be. Idatzita itxi euskuzan obrak honako honeek dira:


*-Institutiones Philosophicae quas Romae in Pontificia Universitate Gregoriana* (Valladolid, 1890-1900), zortzi liburukitan eta latinez. Bertan filosofia, teologia eta zientziaren gaineko gaiak aztertu egiten dira. Honen laburpena

beste obra hau da:

*-Compendium Philosophiae Scholasticae* (Madril, 1902-1904), bost liburukitan eta latinez. Logika, Ontologia, Filosofia Naturala, Psikologia eta Teodizea dira, hurrengo hurrengo, jakingaiak. Argitara emon eban urte berean, 1904. urtean, Juan Jose Urraburu hil zan Burgosen.

Zergaitik idazten eban Aita Urraburuk latinez? Latina zalako Eleizearen hizkuntzea, eleizgizonen irakaskuntzan be erabili behar zan. Urraburu idazle euskaltzale: euskeraz be idatzi eban zeozer, eta euskeraren alde be bai. Hil eta gero, Zeanuriko herriak omendu eban herriko seme handi hau, Zeanuriko Plazeari Urraburu izena ipinita.

**Angel Larrea Beobide**

**TELEFONO INTERESGARRIAK****Larrialdiak**

Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00  
S.O.S. DEIAK 112

**Guardiako Farmaziak**

**09:00etatik 22:00etara**

**Aprilaren 28tik maiatzaren 4ra**

Ibarrola. Zeanuri. Arregia kalea 1  
Tel.: 94 673 93 95 eta 609 402 908

**22:00etatik 09:00etara**

Sarasketa. Amorebieta-Etxano.

**Maiatzaren 5etik 11ra**

Ibarrola. Zeanuri. Arregia kalea 1  
Tel.: 94 673 93 95 eta 609 402 908

**22:00etatik 09:00etara**

Iruarizaga. Amorebieta-Etxano.

**Maiatzaren 12tik 18ra**

Goikoetxea. Dima. Ugarana 33  
Tel.: 94 673 70 54

**22:00etatik 09:00etara**

Aranburu-Guarrotxena. Amorebieta-Etxano.  
Zeberioako ez dau guardiarik egiten.

**Urte osoan****22:00etatik 09:00etara**

Chicote. Kareaga Goikoa 50. Basauri.

**Medikuak**

**Arantzazu:** 94 631 56 89

**Artea:** 94 673 92 11

**Areatza:** 94 631 71 52

**Bedia:** 94 631 34 13

**Dima:** 94 631 56 30

**Igorre:** 94 600 74 63

**Lemoa:** 94 631 31 16

**Ubide:** 945 45 03 61

**Zeanuri:** 94 673 91 49

**Zeberio:** 94 648 20 79

**Udaletxeak**

**Arantzazu:** 94 631 56 89

**Artea:** 94 673 92 05

**Areatza:** 94 673 90 10

**Bedia:** 94 631 42 00

**Dima:** 94 631 57 25

**Igorre:** 94 631 53 84

**Lemoa:** 94 631 30 05

**Ubide:** 945 45 03 22

**Zeanuri:** 94 673 91 46

**Zeberio:** 94 648 10 79

**Udalen Mankomunitatea**

94 631 17 17 / Faxe 94 631 92 15

**Gorbeialde**

94 631 55 25 / Faxe 94 631 71 01

**Parketxea**

94 673 92 79

**Igorreko Kultur Etxea**

94 673 62 51

**Gorbeialde Irratia**

94 631 52 90

**Trenak**

Euskotren 902 543 210

**Bizkaibus\* 902 222 265****Zeanuri-Lemoa-Ospitalea-Bilbo**

Lanegunetan: Lehenengo 05:00etan.

Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era.

Orduro: 06:45etik 21:45era. Azken zerbitzua 22:00etan.

Zapatuetan: Lehenengo 05:00etan.

Orduro: 05:45etik 21:45era.

Jaiegunetan: 07:45etik 21:45era orduro.

**Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri**

Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik 22:15era orduro.

Jaiegunetan orduro 07:15etik 22:15era.

**Durango-Lemoa-Ospitalea-Bilbo**

Lanegun eta zapatuetan: 06:30etik 22:30etara 30 minuturo, azkenengo 22:15ean Galdakaoraino.

Jaiegunetan: 07:00etatik 22:00etara 30 minuturo, azkenengo zerbitzua 22:45ean Galdakaoraino.

**Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Durango**

Lanegun eta zapatuetan 06:30etik 22:30era 30 minuturo.

Jaiegunetan 07:00etatik 22:30era 30 minuturo.

**Ubide-Otxandio-Lemoa-Bilbo**

Ubidetik urteerak, lanegun eta zapatuetan: 06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Jaiegunetan: 08:45etik 20:45era bi ordurik behin.

**Otxandiotik urteerak:**

Lanegun eta zapatuetan: 06:55etik 20:55era orduro.

Jaiegunetan: 08:55etik 20:55era orduro.

**Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide**

Lanegun, zapatu eta jaiegunetan, Otxandiora: 06:45etik 20:45era orduro. Ubidera: 06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

**Zeanuri-Lemoa-Bilbo (Autopistatik)**

Lanegunetan: 07:00etan lehena, eta 08:15etik 21:15era orduro. Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

**Bilbo-Lemoa-Zeanuri (Autopistatik)**

Lanegunetan: 07:00etatik 21:00etara orduro. Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

**Artea-Bilbo**

Lanegun eta zapatuetan: 07:00, 15:30 eta 20:00.

Domeketan ez dago zerbitzurik.

**Bilbo-Artea**

Lanegunetan: 05:45, 14:15 eta 18:45. Zapatuetan ez dago 05:45ekoa.

Domeketan ez dago zerbitzurik.

**Zeberio-Bilbo**

Lanegun eta zapatuetan: 09:15, 11:15, 13:15 eta 17:45.

Jaiegunetan (Arrigorriagaraino): 08:15, 11:15, 14:15, 17:15 eta 20:15.

**Bilbo-Zeberio**

Lanegun eta zapatuetan: 08:15, 10:15, 12:15 eta 16:45ean.

Jaiegunetan (Arrigorriagatik): 10:40, 13:40, 16:40 eta 19:40ean.

**La Union\* 94 427 11 11****Bilbo-Gasteiz**

Lanegunetan: Ubidekoak 09:15ean urtetan dau eta Otxandiokoak 16:00etan.

Zapatuetan: Ubidekoak 09:00etan eta 16:30ean urtetan dau Bilbotik.

Jaiegunetan: Ubidekoak 10:00etan urtetan dau eta Otxandiokoak 18:30ean.

**Gasteiz-Bilbo**

Lanegunetan: Ubidekoak 09:00etan eta 16:15ean urtetan dau Gasteizetik eta Otxandiokoak 10:30ean.

Zapatuetan: Otxandiokoak 10:30ean urtetan dau Gasteizetik eta Ubidekoak 16:30ean.

Jaiegunetan: Ubidekoak 16:30ean urtetan dau Gasteizetik. Otxandiokorik ez dago.

**Babesleak:**

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundutakoa



HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA  
Vicesecretaría de Política Lingüística



Bizkaiko Foru Aldundia  
Diputación Foral de Bizkaia  
Kultura Saila  
Departamento de Cultura



**Argitaratzailea:** ZERTU Kultur Elkartea.

**Helbidea:** Herriko Plaza 24, 48142 Artea.

**Telefonoa:** 94 631 73 14.

**Helbide elektronikoa:** [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com)

**Webgunea:** [www.begitu.org](http://www.begitu.org)

**Zuzendaria:** Iñigo Iruarizaga

**Erredakzino burua:** Beatriz Azpiri. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 112.

**Erredakzino taldea:** Maite Arrizabalaga, Ainhoa Duñabeitia, Irati Urien eta Jon Urutxurtu.

**Maketazinoa:** Iñigo Iruarizaga.

**Publizidadea:** Iñigo Iruarizaga. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 115.

**Banaketea:** Marta Rodriguez, Pablo Rodriguez eta Rut Rodriguez (Lemoa eta Bedia), Ibai Milikua (Areatza), Iratxe Arribas eta Xabier Mendieta (Zeanuri), Berbizkunde Arroita (Zeberio), Amaia Uriarte (Dima), Azibar Sagarna eta Iraitz Sagarna (Igorre) eta Ainhoa Mendia eta Irati Urien (Arantzazu, Artea eta Ubide).

**Tiradea:** 6.800 ale.

**Inprimategia:** Iparragirre Editoriala.

Ale kopurua 6.800 / Lege gordailua SS-512/02 / ISSN zenbakia 1579-5519

## ZEURE BERBEA

### Batzuk joan badoaz

Atzen hamalau urteotan, Miren Bernaola andreak zuzendu dau Luis Iruarrizaga Abesbatza, ezin hobeto zuzendu be. Lan handia egin dau, benetan. Baina denpora faltan, beste hainbat zeregin daukara eta, itxi behar izan dau. Aurrerantzean be mesede eta aberasgarri izango jakoz abesbatzari bere laguntzea eta aholkuak. Ezin eskertu Luis Iruarrizaga Abesbatzagaitik egin dauan guztia. Eskerrik beroenak, ba, Miren.

Abesbatzak bere bidean aurrera egiteko asmoz, beste zuzendari bat topau behar izan dau eta bai topau be, Jorge Trueba jauna. Berari ondo etorria! Pazientzia handia eskatzen deusagu, baita bide luze eta oparoa opatu be.

Abesbatzak, urtero lez, uda-

barriko kontzertuetan parte hartuko dau; beste batzuen artean kontzertu honeetan: maiatzaren 10ean Sodupen; 24an Zaratamon; 31n Barrikan eta bagilaren 7an Igorren. Gogoko dozuen guztioz dozue entzuteko konbitea!

Edozein taldetan jazoten danez, honegaitik edo haregaitik, batzuk joan doaz eta ordezkioak topau behar. Horixe gertatzen jako Luis Iruarrizaga Abesbatzari be. Horregaitik, ba, kantetea eta, bide batez, ondo pasetea gogoko dozuenok, zatozie Luis Iruarrizaga Abesbatzara. Aurrerantzean Luis Iruarrizaga Abesbatzaren Lagun Taldea sortu eta osotutegotan gara. Horretarako prest zagozenok deitu 659 667 699 telefonora edo iruarrizagabesbatza@gmail.com helbidera idatzi.

LUIS IRUARRIZAGA ABESBATZA

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu makinazko 15 lerro baino gehiago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, BEGITUK eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: Zertu Kultur Elkarte. Herriko plaza, 24. 48.142 Artea edo begitu@topagunea.com helbidera.

## GEURE BERBATEGIAREN LEIHOTXUA

ANGEL LARREA ETA JUAN REKALDE

### Beilegi



Koloreen artean, euskaldunok hiru kolore nagusi doguz: baltza, gorria eta zuria. Gorritik hur dago beilegi (bellegie, agoskatuta) edo kolore horia. Horregaitik, ule errubioa daukan personeari ulegorri esaten deusagu. Diman jasotako esakera honek hauxe dinosku: "Horie, gorrie". Beilegi berbeak badauka antxinako beste esangura hau be: erropa zuria, gure hortzak/haginak edo ortuko berakatzak, esate baterako, beilegitu (beilegi kolorea hartu) edo horitu egiten diranean zaharkituta, igartuta edo sasoiak galduta gelditzen dira.

## ERETXIA

### Musikoterapia

Zer gertatzen da musikoterapia saio baten? Baina, zelan musikea ospitale bateko gela baten? Hilzorian dauan jenteagaz? Musikoterapeuta... lanpostua da? itauntzen deusta sarri jenteak. Holangoak erantzuteko idazten dot hemen.

Gizakia sortu zan unetik, bihotzaren taupaden erritmoa daroa aldean, gorputzeko atalen zaratea... eta inspirazioa hor hartuta eta inguruan egoanari erantzunez, soinuak egiten hasi zan. Zeren beharizana da? Bizirik egoteko beharizana, edo komunikautu sentiduten garanean bizirik gagozala jakitearen beharizana; eta hori da musikearen bitartez lortzean dan komunikationaren indar terapeutiko handienetako bat.

Adibidez, zaharren egoitzan gagoz, bizia astiro amaitzen doa, eta aldaketa fisiko edo eta psikologikoari aurre egitea eta moldatutea ez da erreza izaten: "lehen egin ahal nebana, oiran ahaztuta daukat..." edo, "nor da hemen bisitan datorrena eta nire semea dala dinoana?". Holango egoerak ohikoak dira eta sortzean daben ansiedadeari, eta batzuetan daben agresibidadeari be laguntza eskeintzen saiatuten gara. Depresinoak, lo eza, eta hainbat sintoma be lotuta dagoz.

Baleiteke ahalmen asko galduta izana baina musikaltasunaren edo soinutasunaren kanala hil arte zabalik gelditzen dan kanal garrantzitsuenetako bat da. Bihotza gelditu arte, erritmo hori barruan daroagun tanbor bat da. Gure bizitzearen tanborra. Musikoterapeutea, aurrean daukan beste gizakiaren musikaltasun hori entzuteko, eta erantzun egokia emoteko prestatuta dago. Gizaki horren egoerea aztertu, erantzun musikalen bitartez komunikazino bide bat berreskuratu eta kasu honetan, zaharren egoitzako erabiltzaile horren agresibidade maila jaitsi daiteke. Beste galderetako bat "eta musika jakin behar da horra joateko?" izaten da. Erantzuna: Ez. Danok daukagu musika edo soinuak izakera bat, horregaz egiten dau



**MALGOSIA ZIEMKIEWICZ ARTABE**  
Musikaria eta musikoterapeuta

bat musikoterapeuteak.

Entzumena hautatu ezin daikun zentzumena da, begiak itxi eta ez dogu ikusten, baina entzumena gatxa da hautatuten. Zagozan gelan, gelditu une baten, ze zarata dagoz gelatik kanpo? Ze zarata gelan? Ze zarata zeure barruan? eta konturatuten zara soinuak betetako mundu baten bizi garala. Isiltasuna garrantzitsua da baina isiltasuna deitzean dogun horrek be zeozelango soinu uhinak daroaz aldean.

Beste adibide bat, makinak soinuak pi... pi... pi... erizaina pasetan... abots urrunen bat handik eta hemetik... Ospitale bateko gelako ohean gazte bat. Gaixorik daroan denporan musikoterapeuteagaz lanean ibili da. Instrumentuak igon ditu gelara: gitarra bat, Ipad baten mobimentu txikien bitartez soinuak sortzeako aplikazino bat. Kanta bat grabauko dabe gaur. Atzen asteotan, biziizeari buruz, bildurrari buruz, gorputzari buruz, intimidadeari buruzko letrak jarrita, gaztearen ardurak kanta baten sostengatuta grabauko dira.

Prozesu terapeutiko bateri esker, hasikerea eta amaierak daukan abesti batek lortu daike, barruko sentimentuari zentzua emoten deusan marko bat ipintea. Gaztearen abotsa makala da, baina prozesu osoan musikoterapeutearen laguntzeagaz, abesti hori grabau dabe. Ingurumen kliniko baten musikearen ahalmenen bitartez, gaixo dagoan gazte horrek eta musikoterapeutearen arteko erlazino terapeutikoari esker momentu berezi bat sortu ahal izango dabe.

Badauka alde psikologikoak fisikoan eraginik? galdera aldeantiz jarrita inork ez dau darik... ba burutik gorputzera eta gorputzetik burura doazen kanalak bardinak dira. Bizi kalidadea hobetuteko asmoz, musikoterapeuten bitartez, musikearen erabilera hau zabaltzea da gure eginkizuna.

Nork ez dauka memorian soinu kutunen bat, agoa berez kantetan ipinten dan horreetakoa?

## LUMATUTEN



MIKEL DIEGO

## Gudu zelaietatik kanpoko gerrea

**G**aur Arratian gertatutako pasadizu bat kontauko deusuet. Zeanuriko Ipiñaburu auzunean gertatu zan, 1937ko udabarrian, Gerra Zibilean, Mola jeneralaren tropak Bizkaia erasotu bitartean. Kontakizun hau aukeratu dot gerran bizi izandako nekeen adibide argia dalako eta bizi nazan auzune honetan gertatu zalako.

Kontau behar dodanaren barri dakit 1937ko maiatzeko gutun bateri esker. Gutuna Leizaolak, Euzkadiko Gobernuo Justizia eta Kultura Sailburuak, Irujo Espainiako II. Errepublikako ministroari idatzi eutsan eta Xose Maria Nuñez Seixas historialariak jaso eban. Holan dakar:

Molaren tropak Barazar konkistau eta gixira 1937ko aprilaren hasikeran, Asturiasko miliziano errepublikar bi,


alde frankistara pasetako asmoa eukenak, Zeanuriko baserri batetik igaro ziran. Han bizi ziranak jakin eben honeen asmoen barri, milizianoak salatu eta honeen atxiloketea eragin eben. Gau bi beranduago hilda agertu ziran bost abertzale zeanuriztar, seguru asko miliziano asturiarren salaketearen errepresalia moduan. Barria laster heldu zan Ipiñaburura eta auzokoak, bildurtuta, etxeak itxi eta mendian ostondutea ebatzi eben, mendia altxatutako tropak hartua izan arren. Segurtasun gabezia handiko egoera hau, bizilagunen seguridatea bermatzeko Eusko Jauraritzak tropak bialdu zituan arte luzatu zan.

Gogoan daukat sentidu neban larrialdia, baserri hareen aurretik pasautakoan eta sasoi haretan bertan bizi ziranen momentu txarra imajinetan. Alde batera itxita nor izan zan hilketa hareen arduraduna, Arratiako gerrearen memoriari jagokonean, batez be gudu-zelaietatik kanpokoari, oraindino zenbat geratzen dan kontetako eta errekueretako erakusten dau pasadizu honek.

## ZERTZEAN



JON ARTETXE



## BEGI TXINDORRA

**I**gorretik eta inguruko herrietatik kuadrila osoak hurreratu ziran aprilaren 26an Kiñu Gaztetxearen inaugurazio ekitaldira. Bolanderak hasikerak emoteko, performance-a, Arantzarte jantza taldearen jantzak, hurreratukoentzako xanpaina... maila handiko ekitaldia izan zan. Gero, bisita gidatua instalazioak ezagutzeko. Barriztuta, dotore, txukun, zabal eta posibilidadez beteta dago Kiñu Gaztetxea. Zer ikusirik ez, 80ko hamarkadako punk gaztetxeakaz.

Bazkarian, 180 lagun inguru batu ziran. Bertso bazkaria, triki poteoa eta kontzertuak eguna amaituteko.

Baina Gaztetxea benetan ezagutzeko egun bat nahikoa ez dala erxitita, aurkezpen astea prestatu dabe Kiñukoak. Holan, aprilaren 30ean, *Oligopoly* dokumental emonaldia eta kontzertua egon ziran. Maiatzaren 2an, monologoa eta sandwichpotea, "Merche Pichon"; hurrengo eguna lan eguna izango da gaztetxeoentzat. Eta hilaren 4an, bideo emonaldia *Lucio Urtubia: anarquista, falsificador, atracador, pero sobre todo albañil* izenekoa.



**Gorosti** Lorategien Diseinu eta Gauzatzea  
Ureztaketa instalazioa  
Mantenua eta Inausketa

Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea  
Tel.: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88  
gorosti@gorostiscl.com

**agoa** Ortodontzia  
Implanteak  
Estetika

Marina Urigoitia Aldekoa  
Odontologia

Bidebarri 1, behea  
48140 Igome-Bizkaia  
T. 94 631 50 39  
Hilegatu Zerbetea 101  
R.P.S. 21/06

**FISIOTERAPIA** Grupo Sasoibide  
Balneario Areatza

Tania Fernandez Santiago  
COL. 1718

www.gruposasoibide.com Tel.: 94 657 54 50

## ZEANURI

# Ganadu Azoka Zeanurin San Isidro egunean

Ganadu azoka ikusgarria eta baserri munduaren jai jentetsua ospatuko dira Zeanurin San Isidro egunean. Abere, Artisau eta Nekazal Produktuen Azokearen XXXIII. edizioa izango da aurtengoa eta urtero lez, ganaduak ikusi, saldu edo erosi leitez azoka honetan.

### Erredakzioa

Behiak bakarrik ez, ardiak be izango dira Zeanuriko ferriako protagonistak. Izan be, ardi mozketea eta ardiak eraisteko erakustaldia, gaztaigintza eta gaztai lehiaketak egongo dira, baita arto erre dastatzeko aukera be. Azokan, baserriko produkturik onenak egongo dira salgai eta txosnetan taloa eta txakolina dastatu ahal izango dabe hurreratzan diranak.

Herri kirolai jagokienean, idi-probak egongo dira urtero lez hilaren 15ean, eta, barrikuntza moduan, herrian sortu barri dan andra probak egiteko taldeak erakustaldia egingo dau arrastiko 18:00etan.

San Isidro egunaren inguruan beste ekitaldi batzuk be antolatu dira Zeanurin aurreko eta ondorengo astegoienetan. Auzoen



San Isidro Azoka.

arteko Futbol Txapelketea edo erromeria Jokaldi taldeagaz dira horreek ekintzok.

### Egitaraua

#### Maiatzak 10, zapatua

20:00etan, Jokaldi taldeagaz erromeria.

#### Maiatzak 11, domekea

Auzoen arteko Futbol Txapelketea Undurragako futbol zelaian.

10:00etan, Alzustza-Plazea.

11:00etan, Eleizondo-Urribi.

12:30ean, Gurutzalde-Undurraga.

#### Maiatzak 15, eguna

##### San Isidro Eguna

10:00etan, Abere, Artisau eta Nekazal Produktuen Azokearen XXXIII. Edizioa. Azoka barruan hurrengo ekintzak egingo dira: ardiak eraitsi, gaztagintza, ardi mozketa lehiaketea eta arto dastaketea.

11:30ean, mezea San Isidro eleizan.

12:30ean, Arrikibar jantza taldearen saioa plazan.

13:00etan, sari banaketea plazan. Mixel Lekuona gaztai lehiaketearen saria emotea eta "etxe txukunenari" saria.

18:00etan, idi-probak eta Zeanuriko andren arteko andra proba erakustaldia.

#### Maiatzak 17, zapatua

Auzo arteko Futbol Txapelketea Undurragako futbol zelaian.

16:00etan, Gurutzalde-Plazea.

17:15ean, Alzustza-Urribi.

18:30ean, Eleizondo-Undurraga.

## AREATZA / ZEBERIO

# Elorri zuria bedeinkatuko dabe Zeberioko Santa Kurtze ermitan

Badirudi Kristo aurretiko jai zala maiatzeko jai hau eta orduan udabarria gurtzen zala arbolak lorakaz apainduz. Arbola edo enborra edo totema.

### Erredakzioa

Kristautasuna heldu zanean arbolaren orde, kristauen kurutzua zan loraz apaindu eta ospatuten zana. Gaur egun, liturgiak kendu dau bere egutegitik jai hau eta Kurutz Santuaren Gorespenaren eguna urri lehenengoaren 14a da, baina gurean jai hau mantenu egin da Areatzan eta Zeberion.

Zeberion, elorri zuria bedeinkatuko dabe Santa Kurtze ermitan hilaren 3an, eguerdiko 12:00etako mezan, ohitua dan legez. Juan Manuel Etxebarria etnolinguistak azaldu deutso BEGITURI ohitura honen zergaitia. Izan be, zientzia zabaldu aurreko jentartean, "bedeinkatutako elorria ortuan sartzean zan, ortuaren zaintzarako". Eguerdian, herri indababa jana egongo da egun ho-

rretan, eta hurrengoan idi-probak eta Helbarrengo konbidaduen bazkaria. Hiru eguneko jai egitaraua prestatu dabe Zeberioko Santa Kurtze auzunean.

Areatzan, barriz, Santikurutz esaten jako jai honeri. Herrikoak, basoan dagoan izen honetako ermitara igon eta bertan mezea entzun ondoren, barauskarri batez ospatuten dabe jai.

### Egitarauak

#### Zeberio

##### Maiatzak 2, barikua

19:00etan, jaien hasikerea Santa Kurtze auzoan. Txupinazoa.

19:30ean, Tortilla Txapelketearen hasikerea.

21:00etan, tortillen aurkezpena. Sari banaketea.

21:00etan, bertaratukoentzat saiheskiak eta abar, parrillan doban. Koldo Etxebarria trikitilaria.



Elorria bedeinkatu eta gero ateetan zein ortuetan ipiniko da.

Suzko zezena.

21:00etan, kontuz: "Ojo al Club Relampago-Athletic de Bilbao".

### Maiatzak 3, zapatua

09:30ean, oinezko eta korrikalariarentzako IV. Untzeta mendirako urtekerea. Tontorrean, hornidurea.

11:45ean, Santa Kurtzen harre-rea.

12:00etan, Santa Kurtze ermitan mezea. Erramuen bedeinkapena. Betiko ohitura lez, arantzea eroatea gomendatzen da, Elorri zuria bedeinkatzearen ohitura Zeberioko ondare kultural naturala da. Meza ostean, barauskarria. Ondoren poteoa.

14:45ean, Santa Kurtze landan, herri indabada, eskonbro, postrea eta kafea. 14:30ean umeentzako jana: makarroiak eta solomoa doban. Aurretiaz tiketak hartzea derrigorrezkoa.

16:30ean, umeentzako jolasak. Xerigrafia tailerrak. Umeak etxetik kamisetak eroan xerigrafietako.

Santa Kurtzeko Tiragoma Txapelketea.

17:00etan, XXI. Santa Kurtze Mus Txapelketea txosnan. Izen emotea 10 euro. Lau finalistentzat afaria Olatxun.

20:00etan, txokolate eta bizkotxoak.

22:00etan, Atxurkada musika taldeagaz kontzertua.

### Maiatzak 4, domekea

12:30ean, aizkolariak.

13:00etan, idi-probak. Txorierriko idiak. Zeberioko 1.400 kiloko harria.

15:00etan, Helbarrengo baserrietan konbidaduen bazkaria.

### Areatza

#### Maiatzak 3, zapatua

11:00etan, Santikurutz ermitara igoera bide zaharretik: Karpo-Uribitarte-Santikurutz.

12:00etan, Santikurutzeko baseleizan mezea.

Mariano Ortuondoren omenez bertsoak eta Areatzako txistulariak.

13:00etan, barauskarria.

## ARRATIA

# Bediatik Lemoara maiatzaren 1eko manifestazioa

### Erredakzioa

Maiatzaren 1eko manifestazioa jentetsua izan zan Arratian. Bediatik Lemoaraino joan ziran martxan enpleguaren aldeko aldarrikapenak. Aurten, eskualdekoa Bedian egitea ebatzi eban LAB sindikatuak, Inco-

esak 340 egun greban eroiazalako. Manifestazio buruan Incoesa eta Alfuseko beharginak egon ziran "Bertoko borroka biharko garaipena" pankartearen atzean.

Martxea Bedian hasi eta Lemoan amaitu zan, eskualde osoan egoera larria dala salatuteko. "Arratian lan

suntsiketea larregizkoa da, ez bakarrik Incoesan; Alfusen, Negarran eta beste enpresa askotan be enplegua suntsitzen dagoz" esan eban Luis Migel Garcia LABekoak. "Gora langileon borroka", "hemen gaude enpleguaren alde", eta "borroka da bide bakarra" leloak oihukatu zituen partaideak. Manifestazioaren erdikaldean beste pankarta bat egon zan, hau Ernaik sinatutakoa "gazteok batu, burujabetza borrokatu" inoana.

### Bilbon manifestazio nagusia

Sindikatu guztiak Bilbon egin eban manifestazio nagusia eta bertan egon ziran arratiar asko. Han, ELA

sindikatuak beharginen burruka eta eskubideak defendiduteko kaleak izan behar dauan garrantzia azpima-

rratu eban.

CCOO eta UGT sindikatuak kalidazko lana aldarrikatu eban.



Bediatik abiatu zan manifestazioa.

## DIMA / ZEANURI

## Gure Esku Dagoren aurkezpenak

## Irati Urien

Gure Esku Dago dinamikeak aurre segiduten dau Arratian. Eskualdeko taldea hilean behin batuten da ekimena koordinetako asmoagaz. Batzar horreetan bagilaren 8ari begira Arratian giroa zelan berotu erabagiten da, besteak beste.

Hamabostaldi honetarako zita bana ipinita dago bai Dima eta bai Zeanurin. Zeanurikoak egitarauagaz bezperatik hasiko badira be, maiatzaren 10ean egingo da aurkezpen eguna herri biotan.

## Dima

## Maiatzak 10

13:00etan ekitaldia eta manifestuaren atxikimuntua.

14:15ean herritarrek argazki handia plazako harmailetan.

14:30ean herri bazkaria frontoian. Ostein, musikea eta jai giroa.

## Zeanuri

## Maiatzak 9

19:00etan *Gazta zati bat* pelikula Kultur Etxean. Ondoren, kantu-poteoa herriko tabernetan.

## Maiatzak 10

07:45ean, hiru zubiak herriko txistulariakaz.

08:00etan Gorbeia igoera, kurutzaren inguruan giza-katea egiteko.

12:30ean kantu-poteoa herrian zehar trikitilariakaz.

14:30ean herri bazkaria. Ondoren: aldarrikapena, herriko jantzariak, giza katea, kantaldia Esti eta Olatz eta Gontzalegaz, eta amaituteko andra probak Zeanuri vs Soraluze.

## DIMA

## Sei herritako jantzari txikiak batuko dira Diman

## Erredakzioa

Dimako Gazte Barri Dantza Taldeak antolatuta, XVI Dantzari Txiki Eguna ospatuko dabe Diman hilaren 11n. Bertan, Dimako jantzariak batera, Beasain, Lazkao, Otxandio, Zeanuri eta Areatzakoak egongo dira. Antolatzaileen aurreikuspenen arabera, 150 ume inguru.

Ume guztiak batu eta 11:00etan hasiko da jai kalejira batez. Kalejira Diman dagozan zahar



egoiztatik be pasauko da, baina hainbeste ume diranez, talde bitan bananduko dira eta batzuk egoizta batera joango dira eta beste batzuk bestera, han jantza batzuk egiteko. Kalejira amaitutakoan alardea egingo dabe plazan.

Bazkaria frontoian izango da eta gero erromeria egongo da 18:00etan jai amaiera izan arte.

## Euskal jantzen alardea

Hainbeste urtetan zehar holango alardea mantendutea ez dala erreza dino Mikel Pelaez Gazte Barri Dantza Taldekoak. Lan handia dago atzean eta batez be, "gatxa da sei taldeak batzeako data bat topatzea". Baina atzenezan beti amaitzen dabela pozik dino, jai giroa ederra izaten da eta.

Dimako Gazte Barri taldea Beasainera joango da maiatzaren 25ean, orduan han izango da eta alardea.

teko epea zabalik dago. Lanok Lemoako udaletxean aurkeztu behar dira bagilaren 20a baino lehenago. Lemoako herritarrak hartu daikie parte lehiaketa honetan.

"LEMOAKO JAIK 2014" inskripzioa agertu behar da kartelean. Egilearen sinadura barik aurkeztu behar dira, eskuz zein ordenagailuz egin daitezke eta A4 formatoan auzeratu behar dira kartelok. 175 euroko sari bi emongo ditue.

## LEMOA

## Lemoako Jaietako Kartel Lehiaketa

## Erredakzioa

Lemoako Jaietako Kartel Lehiaketan parte hartzeako lanak aurkez-

## IGORRE

## 105 etxebizitzaren eremutik hasi gura ditu lanak Bilduk



105 ingurua holan geldituko litzateke amaitukeran.

## Erredakzioa

Igorreko alkate Beinat Anzolak aurkeztu eban apirilaren 28an prentsaurrean Agirre Lehendakari kaleko obrak Lasarte parkearen paretik, hau da 105 etxebizitzaren eremutik, hasteko proiektua. Agirre Lehendakari kalearen proiektu orokorra aurreko legegintzaldian onartu zan eta zatika egitea aurrekusten da udal aurrekontuetan. Proiektu orokorra aurrera atera bazan be, nondik hasi behar dan ebazteko orduan udal taldeak ez datoz bat.

Eremu hau herriaren erdian dago baina "nahiko abandonatuta edo alde batera itxitako gunea izan da" alkatearen arabera. Bertatik, herriko ibilbide nagusi batzuk dagoz: eskolara edo kiroldegira, berbarako, eta oinezko eta kotxe asko pasetan dira bertatik, arrisku egoerak sortuz. Anzolak aurkez-

tutako proiektuak etxe aurreak oinezkoentzako gunehurtutea, berdeguneak ipintea, argiteria hobetutea eta irisgarritasuna bermatutea gura dau. Hori dana egiteko, igaz gelditutako dirua erabiliko zala azaldu eban alkateak eta lanak urrietan hasiko ziralda. Baina horretarako udalbatza onartu behar da proiektua eta EAJ-PNV edo Igorre Danontzat plataformaren botoak behar dira.

## Oposizioak beste lehentasun batzuk

Talde guztiak, Bildu, EAJ-PNV eta Igorre Danontzat, 105 etxebizitzaren eremua txukuntzeko premian ados egon arren, ez da gauza bera gertatzen lanak nondik hasi behar diran ebazteko orduan. Izan be, Iñigo Uriarte zinegotziaren arabera, EAJ-PNV ez dago proiektuaren aurka, baina Dimarako

bidekurutzetan biribilgunea egiteak dauka lehentasuna eta 105 etxebizitzaren eremuan lanak egiten hasi aurretik kotxeak non aparkatu zehaztu beharko litzateke.

Igorre Danontzat plataformea batez be erabilitako prozedureagaz da kritiko. Izan be, proiektuak Urigintza Batzordean Bilduren babesa baino ez ebala euki dino eta "ez da normala ezelango adostasun barik aurrera ateratea". Gainera eurak 105 etxebizitzaren eremua "osorik" eta beste era batera konpontzea gura dabe. Izan be, proiektu horretan erdia oso ondo konpondu baina beste erdia "itxura barik" ixten dala dino Iñigo Undurraga plataformako zinegotziak.

## IGORRE

## Herritarrak ebatziko dabe jaiak zelan izendatu

## Erredakzioa

Igazko Igorreko jaietako kartelean ez zan "San Antonio" idatzita agertu eta igorretar batzuek faltan bota eban hori Jai Batzordekoen arabera. Batzordeak kejea kontutan hartu eta herritarri aukerea emon deutse jaiak izena ipinteko. Bi aukera dagoz: Igorreko Jaiak edo Igorreko San Antonio Jaiak. Bozkaketea Kultur Etxean egin ahal izango da, hilaren 5era arte.

## DIMA

## Sukaldaritza ikastaroa

## Erredakzioa

Gazteak eguneroko jatekoak egiteko eta horretarako erosketak egiten ikasi eta, beraz, euren autonomia bultzatzeko asmoz, Dimako Udalak, Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntzeagaz, sukaldaritza ikastaroa antolatu dau Landaburu Txokoan. Ikastaroa Jauregibarria jatetxeko Beñat Ormaetxeak emongo dau eta lau saio izango ditu: lehenengoan ikasleak lehenengo platerak prestatzen ikasiko ditue, bigarrenan okelea, hirugarrenean arraina eta laugarrenean postreak. Saiok hilaren 7an, 14an, 21ean eta 22an, izango dira hurrengo hurrengo. Izena maiatzaren 5era arte emon daiteke udaletxean.

Bizkaiko sukaldaritza sustatzen Beñat Ormaetxeak sukaldaritza tra-

dizionala eta sukaldaritza barritzailea buztartzen ditu. Sariak be jaso ditu sukaldari honek, 2001 urtean Espainiako Sukaldari Gazteen Txapela kasurako. Beste batzuen artean, Martin Berasategi jatetxean eta Guggenheim-eko jatetxean egin dau behar.

Ormaetxea Geugaz Jan Bizkaiko Sukaldarien Elkartearen kidea da. Alkarte honetan Bizkaiko sukaldaritza sustatu eta sakonduteko egiten dabe behar. Bertako produktuak balorearen ipintea, eskualde bakoitzeko ohitura gastronomikoak zaintzea, etenbako barrikuntzea, eta bitzita kalidatea lortzea kalidateko produktuen erabilera eta zaporeen bitartez dira Beñat Ormaetxearen filosofia gastronomikoaren ardatzak.



## ARRATIA

## Enplegua sustatzeko Arratiarako Plan Inegrala eskatu dau Bilduk

## Erredakzioa

Arratiako EH Bildu, urtailean enplegua sustatzeko Arratiako Plan Integralerako pausuak emoten hasi zan. Bide horretatik, maitez, talde politiko, sindikatu, enpresari eta eragile desbardinak hartu-emonetan ipiniko dala jakinarazo dau. Martzan dagozan enpleguaren inguruko ekimenak kontuan hartuz, -Igorreko Beharbidet, berbarako- egoera ekonomiko eta enpleguaren hausnarketarako "danon artean" gunehurtutea eta Arratiarako Plan Estrategikoa adostea gura dau EH Bilduk.

## ARRATIA

# Arratiako Alderdikide Eguna ospatuko da Beheko Plazan Igorren

### Erredakzioa

Hainbat ekintza antolatu ditu Igorren EAJ-PNVk Arratiako Alderdikide Eguna hilaren 3an ospatuteko. Ekitaldi politikoa, 12:00etan hasiko da eta bertan, Izaskun Bilbao Barandika, Europako hauteskundeetako EAJren hautagaia eta Itxaso Atutxa, BBBko presidentea izango dira. Ondoren poeteak, alderdikide bazkariak eta musikeak ipiniko dabe jai giroa.

Jeltzaleak, Europaren alde eta ebazteko eskubidearen aldeko aldarrikapena egingo dabe Alderdikide Egunean. "Euskadi Euro-para begira dago orain, iraganean egon zan moduan. Euskal Herriaren aitortza aldarrikatzen dogu, gure inguruko nazino guztiak daukiezan baldintza bardinetan, bere etorkizuna askatasunez eta demokratikoki ebazteko dauan eskubidea aldarrikatzen dogun moduan" dinoe.



Itxaso Atutxa.

### Ume, gazte, eta helduentzako jai

Igorre, Arratia eta "Bizkaiko txoko guztietako" herritarrek Igorren egingo dan jaira konbidau gura ditu EAJ-PNVk. Izan be, Asel Ozerinjuregi antolatzailearen arabera, adin guztietako jenteak topauko dauz bertan bere gustuko ekintzak: puzgarriak, mitina, triki-poteoa, bazkaria eta dj-a, tartean.

## LEMOA

# Kultura eskola barruan eta eskolatik kanpo

### Erredakzioa

Hilaren 5etik 11ra arte, Kultura Astea ospatuko dabe Lemoan, JB Eguzkitza Meabe Ikastetxeak, Udalak eta herriko alkarteak antolatuta. Asko dira eskola barruan eta eskola umeai zuzendutako ekintzak, baina publiko orokorrari begirakoak be asko dira, tailer, berbaldi, musika eta kirolaz gozatzeko udabarrian.

### Maiatzak 5, astelehena

**15:00**etan, Kubako ikastetxeagaz alkarbanandutako lanen aurkezpena eskolan. JB Eguzkitza Meabe Ikastetxeak antolatuta.

**18:30**ean, "Espazioak eta denporak marrazten jentarte justuago baterako" tailerra. Lemoako Udaleko Parekidetasun Zerbitzuak antolatuta. Jubiladu Etxeko goiko aretoan.

### Maiatzak 6, martitzena

**15:00**etan, Literatur solasaldia Julen Gabiria idazleagaz. JB Eguzkitza Meabe Ikastetxeak antolatuta. Eskolan.

**16:30**ean, umeentzako zeramika tailerra. Ekilore Zeramika taldeak antolatuta. Eskolan.

**18:30**ean, Kepa Lizarraga kirol medikuaren berbaldia "Frontoiko kirolak eta osasuna". Lemoako Pilota Eskolak antolatuta. Jubiladuen Etxeko goiko aretoan.

### Maiatzak 7, eguaztena

Goizean, Kulturartekotasuna lantzeako Munduko Jolasak eta tailerak. JB Eguzkitza Meabe Ikastetxeak antolatuta. Eskolan.

**19:00**etan, Jon Arretxe idazleagaz Irakurle Kluba. Lemoako Udaleko Euskera Zerbitzuak antolatuta. Elizondoko Kultur Gunean.

### Maiatzak 8, eguena

Goizean "Cup Song" euskerearen aldeko bersinoan. JB Eguzkitza Meabe Ikastetxeak antolatuta. Eskolan.

**17:00**etatik **21:00**etara, "Gure historiaren pasarteak" argazki emonaldia Ander Gillenearen eskutik. Lemoako Udaleko Kultura Zerbitzuak antolatuta. Elizondoko Kultur Gunean.

**19:00**etan, Arratiako Musika Esko-

lako ikasleen kontzertua. Arratiako Musika Eskolak antolatuta. Eleizan.

### Maiatzak 9, barikua

**10:00**etan eta **11:00**etan, *Faustinarekin munduratuz* antzezlan. Eskolan.

**12:00**etan, Eneko Etxebarrietaren *Hegoamerika tandem batean* proiektino. Lemoako Udaleko Kultura Zerbitzuak antolatuta. Eskolan.

**19:00**etan, *Stretching* saioa. Gantzabal Mendi Taldeak antolatuta. Jubiladuen Etxeko goiko solairuan.

### Maiatzak 10, zapatua

Goizean, umeentzako mendi urtekera Katillotxu (336 m.). Sukarrieta. Gantzabal Mendi Taldeak antolatuta.

**19:00**etan, *Ez da kasualitatea* bertso-saio musikatua. Lemoako Udaleko Kultura Zerbitzuak antolatuta. Elizondon. Ondoren "Harro bizi euskaraz Lemoan" bideokliparen *making off-a*.

### Maiatzak 11, domekea

Goizean mendi urtekera Bergagain (1.153 m.)-Baiza (1.182 m.). Gantzabal Mendi Taldeak antolatuta.

**13:00**etan, desafio herrikoa: aizkora eta trontza modalidadean. Mendieta Herri Kirol Taldeak antolatuta. Elizondon.

# Arratiako Musika Eskola

## IKASLE BERRIEN MATRIKULAZIOA

**Epea: maiatzean**

- Infante kalea, 2. Artea
- Astelehen, asteazken eta ostiralak

10:00etatik - 13:00 arte  
Tlfnoa: 94 631 73 52

- \*Matrikulazioa posta elektronikoz:  
arratia.musikaeskola@gmail.com

- Arratsaldez, zentroetan

ARRATIARRAK EL CONQUISTADOR DEL FIN DEL MUNDO SAIOAN

# Lemoaztar bi munduaren muturraren konkistan

Lemoaztar bi egon dira aurtengo *El Conquistador del fin del mundo* ETB2ko abenturazko reality arrakastatsuan: Leon (Alberto Cerro) eta Antuan (Andoni Ozerin). Iguazuko paraje ederretan, euren erresistentzia muturrera eroan eta bizitza arriskuan be ipini dabe lemoaztar bi honeek. Dana dala, pozik atera dira biak esperientzia honetatik, baina kritiko agertzen dira probak daukien arrisku maila handia dala eta.

Igazko urri bigarrenetik zemendiara egon ziran Iguazun, orain emitiduten dabizen saioak grabetan. Lemoaztar biak talde baten egon ziran Leonen taldea desegin zanean eta Leon Antuanen taldera pasau zanean.



Alberto Cerro.

## Leon: "Aurtengoa infernua izan da"

### Erredakzioa

Alberto Cerro Leonek (53 urte), bitan hartu dau parte abenturazko saio honetan. Igaz Patagonian ikusi ahal izan genduan eta aurtentan, Iguazun. Lemoako diskoteka baten segurtasun arduraduna da eta burruka arteetan aditua: kung fu, karate, pencak silat, judo...

Munduko Txapelduna be izan zan eta Estatu Batuetan *The Ultimate Fight Championship*-en egin eban burrukan. Steven Seagal-egaz entranau eban eta Chuck Norris edo Van Damme ezagutu zituan.

Iguazuko ur-jauziak munduko 7 lekuri miragarrienen artean egon arren, atzenengo egunak arte ez zituala disfratau dino Leonek. "Oihana polita da txango bat egiteko, baina bertan egoteko nik nahia-go dot Patagonia. Eguzkitsuagoa eta ikusgarriagoa da. Oihanean, barriz, arbol artean eta animaliak inguruan dirala...".

### Zergaitik ebatzi zenduan lehiaketa honetan parte hartzea?

Orain dala urte bi izan zan. Animo aldetik baju nengoan arazo sen-

timental bat zala eta. Gau baten telebistan iragarkia ikusi neban eta izena emon neban. Hartu ninduen eta aurrera egin neban.

### Jente askok emoten dau izena, baina gitxi batzuk dira aukeratuak.

Nik uste dot aukeratu ninduela neure bizitzako ibilbideagaitik. Lehendik be oihanean ibilitakoa naz, Malasian eta Indonesian. Gero itaunak egiten hasi eta esaten dozunean "burruka arteetan munduko txapelduna izan naz" edo Estatu Batuetan defentsa personalean munduko txapelduna izan nazala, ba interesetan jakie.

### Telebistan ikusi dana eta zuk bertan bizi izan dozuna bat datoz?

Telebista telebista da, eta aukeratu egiten da zer emitidu. Han 24 orduz zagoz eta berbetak eta beste gauza asko gertatzen dira. Gero ordu bitan, aste osoan gertatutakoa kontetan dabe. Nahiko ondo, baina ez da guztiz izan dan modukoa.

Gosea eta sufrimentua oso ondo erakusten da. Partaideen arteko berbetak dirala eta, beti bilatzen dabez mota konkretu batetakoak. Azken finean, reality show

bat da.

### Zer izan da onena eta zer txarrena?

Onena aitatzerakoan, lehenengotik herrialdea bera aitatuko neuke. Argentina oso ederra da, harmoniatsua eta hango jentea berezia da zentzurik onenean. Gauza onen artean be, lehiakideen arteko laguntasuna aitatuko neuke. Ordura arte ezezagunak ziranakaz, dan-dana konpartidu behar dozu eta laguntasuna sortzean da.

Txarrena gosea izaten da. Dana dala, nik gosea eta hotza ondo eroaten dodaz. Egia esan, txarrena da nominata zagozanean, inork ez dau etxera joan gura eta. Mundu guztia egoten da denpora guztian jaten pentsetan, baina ezinbesteko kasuetan izan ezik, inork ez dau etxera itzuli gura. Atzenengo momentura arte eutsi gura deusagu danok. Sano jente gogorra da, bardin deutso etxeko andrea ala eliteko kirolaria izan, inork ez dau ha itxi gura.

"Ordura arte ezezagunak ziranakaz, dan-dana konpartidu behar dozu eta laguntasuna sortzean da"

### Denpora guztian bizitza arriskuan dagoala dirudi. Hori hori lan da?

Inor ez da hil, baina askok zauriak izan ditue, batzuek larriak, gainera. Proba batzuk sano arrakastuak dira eta mediku bat eta segurtasun talde bat inguruan egon arren, batzuetan istripuak gertatzen dira. Hori be agertzen da saioan baina apur bat leunduta, ez dan bezain gogorra. Aurten, kasurako, partaide batek, Jorgek, sano lesino larria euki dau, bizkarrezurrean. Ondo geratu da. Beste bateri, kubitua apurtu jako, beste batek lesinoak izan ditu hiru sai-hetsetan eta puntuak okotzean... Probak sano arrakastuak dira eta urtean-urtean arrakastuagoak.

Eta gero, zomorroak eta animaliak dagoz. Zerbaitek heldu eustan niri, ez dakit zer ete zan, eta lehiakideai be bai. Tripa barruan be harrak ekarri zeinkez...

### Ze balantze egiten dozu? Barriro be joango zinateke?

Bitan egon naz eta hirugarren baten be joango nintzateke. Batzuk joaten dira telebisinoan agertzearen, beste batzuek, eta hauxe da nire kasua, euren burua balorau eta esperientzia hau bizi gura dabelako egiten dabe. Eta errepetidu gura izan dot jakiteko zein puntutarraino egon naiteken edan barik eta jan barik, zeintzuk diran neure mugak. Zortzimilako bat egiten txarto-txarto pasau dauan

mendizalea be barriro igoten da mendira. Geuri be horixe berori gertatzen jaku. Abenturazale espiritua dala uste dot.

Eta beste alde batetik, esatea 50 urte ez dala ezer amaitu. 50 urte izan edo 80 urte izan, edadeak ez dau zarana irudikatzen, zeure jarkereak baino.

### Jenteak ezagutzen zaitu kaletik, ezta? Ze aldageta ekarri ditu zeure eguneroko bizitzan programatik pasau izanak?

Bai, jenteak ezagutzen nau. Ez neban pentsetan hainbeste jentek ezagutuko ninduanik. Diskoteka batetik zein eskola batetik deitzean nabe, edo herri kirol saio baten argazkiak egiteko... Gipuzkoan, Nafarroan zein Bizkaian egoten da jentea gura dauana nik zeozer sinatutea, edo eurekaz argazki bat ateratea edo berbetan jardutea. Sano polita da. Gainera, harro sentiduten zara maite dozun jenteak ikusi daualako zelan egin dozun burrukan edo gosea pasau dozula. Jentea horregaz identifikau egiten da eta oso polita da.

### Zeozter gehitzerik gura dozu?

Bitan bizi izan dot esperientzia hau eta bene-benetan hirugarrenean be prest egongo nintzateke. Mundu guztiari, edo hau edo beste abenturaren bat bizitea gomendatuko neuskio. Bizitza bat baino ez daukagu eta disfratau egin behar da.

# Antuan: "Ni, han, itoten, itoten eta ez ninduen ateraten"

## Erredakzioa

Andoni Ozerin Amuriza, "Antuan" (34 urte) lemoztarra da, Laureta auzuneko, eta orain Busturian bizi bada be, Lemoan bizi izan da orain dala gitxi arte. Kirolzalea, batez be bizikletea dau gustuko eta zonabike Galdakaoko taldeko txirrindularia da.

Lehenengo aldia da *El Conquistador del fin del mundo* saioan parte hartzean daua eta susto handi bat izan eban, ia ito egin zan eta. Dana dala, Antuanek be balantze positiboa egiten dau eta barriro be parte hartzeako prest egongo litzatekela dino.

## Zergaitik ebatzi zenduan lehiaketa honetan parte hartzea?

Ni oso abenturazalea naz eta holaro esperientziak gustetan jataz. Gainera, oso gogorra zala entzuten neban eta jentek esaten eustan joateko eta probetako. Kirola asko gustetan jata eta jentegaz ondo konpontzen naz eta casting-era aurkeztutea pentsau neban. Ondo urten zan.

## Askok emoten dabe izena, baina gitxi izaten dira aukeratutakoak.

Ni zelangoa nazan erakutsi neban, gauza batzuk aldatuta, casting-ari grazia emoteko eta atzenean ondo urten zan. Biajeetako anekdotak kontau nebazan. Venezuelako Salto del Angel-en egonda nintzan, trekking-a be

egiten dot eta mendiak be egin dodaz. Bizikletan asko ibiltzen naz eta astegoiaren guztietan egiten dodaz txurrindularitza lasterketak. Zonabike ekipoan nago.

## Telebistan ikusi dana eta zuk bertan bizi izan dozuna bat datoz?

Telebistan eurak aukeratutako momentuak ikusten dira, baina han bizi izandakoa diferentea da. Han, denpora gitxian gauza asko pasetan dira eta indartsu egon behar da momentu guztietan, goiari eusten eta Julianen kritikak agoantetan. Gogorra da. Psikologikoki oso gogorra da, fisikoki baino gogorragoa. Presino psikologiko handia dago.

## Zer izan da onena eta zer txarrena?

Gosea gogorra da, baina eroan eroaten da. Txarrena, botazi-noak... hartu-emon ona daukazun jentea botateko botoa emotea ez da gustukoa, baina atzenean lehiaketa bat da eta hori egin behar da. Badagoz gauza batzuk aldatuko neukezanak, han modu baten egin dodazanak eta beste modu baten egingo neukezanak. Baina holan urten zan.

Onena esperientzia hori bizi-tea izan da, jentea ezagutea eta ha rodajea zelana egiten daben ikustea, zelango probak ipinten dabezan...

Gorputza limitean dagoanean beste era batera funtzionetan dau buruak. Eta bakotzak topau behar dau bidea bere kabuz.

Etxean zagozanean, zeure burua indartsu ikusten dozu eta gauzak errez egin daitezuzala pentsetan dozu, baina han ez zagoz hain indartsu eta beste era bat topau behar dozu gauzak egiteko. Ni ez nintzanean indartsu sentiduten atzeko partean egoten nintzan, taldearen atzeko partean, ez nabarmentzeko eta besteak ikusteko ez nazala ondoen dagoana. Indarrak gordetzen nebazan. Jakin egin behar da estrategia apur bat. Planifikau egin behar da aurrera segiduteko.


Gosea bai, baina nik ez dot jaten hainbeste. Jentek pentsetan dau gehiago jaten dodala handia nazalako eta atzenean, han taldean egoten ginanean, nik beti ixten neutsen besteai lehenengo jaten eta, geratu ezker, neuk be jaten neban. Orokorrean, bannaduten genduan dana, baina ni eskuzabala izan naz beti. Eta besteen alde lan egiten dozula erakustea, atzenean ondo dago hori be.

Gosea pasau dot, hotza pasau dot eta momentu gogorak pasau dodaz. Eta hemen arin pentsetan dozuz gauzak, baina han pentsetea gehiago kostetan da eta momentuan urteten jatzuna igoal ez zan onena. Ez da erreza.

## Ze balantze egiten dozu? Barriro be joango zinateke?

Bai. Nik primeran pasau dot eta esperientzia moduan polita izan da. Bakarrik, saioak polemikea bilatzen dauala, istiluak sortzea, limitea topatzea, eta... justu-justu dabiz, mugan, e? Nik neure muga topau dot, ia-ia han geratu naz eta.

Proba baten, uretan, uger egiten ninoiala hankak paralizau jatazan. Gorputzak ez daukanez ez alimentorik ez ezer, eta muskulua ez daukienez likidorik, holan



Andoni Ozerin.

goak gertatzen dira. Muskulan deshidratazioa euki neban eta ni han, itoten, itoten, itoten eta ez ninduen ateraten. Momentu gogorra izan zan. Ez nintzan gogoratzen momentu horretaz, baina telebistan ikusi dodanean... Familiak sufridu egin dau. Oso gogorra izan zan.

## Jentek ezagutzen zaitu kaletik, ezta? Ze aldaketa ekarri ditu zeure eguneroko bizitzan programatik pasau izanak?

Nik bardin segiduten dot. Jentek gehiago ezagutzen nau baina nire bizitzan ez dau eraginik izan. Bizitzak bardin segiduten dau, dirurik ez dator hortik. Baina pozik,

esperientzia polita.

## Ezer gehitzea gura dozu?

Esan gura dot nire lagun Oier Nuñezek lagundu deustala hau prepartetan, Ubide Abentura enpresea daukanak. Lagundu eustan probak prepartetan, tirolina, eta abar. Eta esan gura dot baita, aitaren txapela eroan nebal bere omenez. Berak oparitu eustan lehenengoz etxetik joan nintzanean eta esan eustan "eroan hau biaje guztietan eta holan nitaz akordauko zara" eta holan, indar handia emon deusta.

Aita beti baserrian bizi izan da eta inoz ez dau biajerik egin eta ni beti leku batetik bestera...

www.bertsozale.com/bizkaikotxapelketa

arratiako bertsozale txapelketa

Igorren, maiatzaren 4an, domeka, 17:30ean, Lasarte aretoan

Aitor Azua Bazterro  
Igor Meliña Bengasosa  
Marta Genuzo Larrababal  
Iñaki Irujo Zuluaga "Irujo"  
Iñaki Astondo Zuluaga  
Iñaki Bernedo Sagardui

Aztiak  
Babesleak: BFA DFB, bbk, Laguntzaileak: begitu

www.begitu.org



publizitatea  
94 631 73 14 eta 649 979 115

Gugaz harremanetan ipinteko  
94 631 73 14 eta 649 979 112  
begitu@topagunea.com

**LASTERKETEAK**

**Lasterketa bat baino gehiago**

**Irati Urien**

Maiatzaren 18an Lasterbidean, nazio alkartasun lasterketea egingo da Larrabetzun. Kirol mundutik, korrikaren esparrutik hain zuzen, sortutako ekimena da Lasterbidean. Bigarren edizioa da aurten, Oiarzunen egin zan igaz eta aurrera begira behin erreprezialduak etxera bueltatukoan bertan behera ixteko asmoduna da.

Xabier Kantsado, Lemoan bizi dan gasteiztarra, lasterketearen antolatutzako kidea Aingeru Artetxe eta Guillermo Marañon "Txiki"ren laguntzagaz, Arratian ekimena zabalduko beharrez dabiz. Arratia mailan aurkezpena maiatzaren 9an izango da, 20:00etan, Igorreko Kultur Etxean. Marka egiteko proba bat

baino, preso eta iheslariak alkartasuna adierazteko lasterketea dala argi itxi gura dabe. Zailtasunari jagoan, edonok egiteko modukoak ei dira dagozan ibilbide biak. Sariak presoak egindako lanak izango dira. "Guk kanpotik behar egiten dogun bitartean eurak barrutik egiten dabe euren lana", dino Kantsadok.

Egun osoko egitaraua egongo da Larrabetzun: lasterketa bera, bazkaria, kontzertuak, kirol erakustaldiak, jokoak... Preso ohia dan aldetik, Txiki familiagaz zein lagunakaz egun osoa joan eta parte hartutera animetan dau jentea; berak be galapan egingo dau. Izena emoteko, bazkarirako tiketak erosteko zein beste edozein gestiotarako eskura dago [www.lasterbidean.com](http://www.lasterbidean.com) helbidea.



**Kantsado, Marañon eta Artetxe.**

**RALLYSTONE**

**Dimatik urtengo da erlojupeko proba**

**Erredakzioa**

Hilaren 2, 3 eta 4an izango da Rallystone 2014 eta Arratiatik domekan, hilak 4, pasauko da. Lemoatik Igorrera N-240tik etorriko dira eta Dimara BI-2543tik joango dira. Diman, 09:30ean erlojupeko urtekerea izango da. Aurten, 45-50 auto inguruk hartuko dabe parte, tartean, Iban Eguskitza eta Oscar Padilla arratiarrak BMW E-21 bategaz.

Auto klasikoak, hau da 25 urte baino gehiago dituen autoak hartzean dabe parte Real Peña Motorista Bizkaia antolatuten dauan nazioarteko hiru eguneko proba honetan. Bilboko Arenalean egongo dira partaideak, hilaren 2an, arrastiko 16:00etan eta 17:45ean izango da lehenengo etaparen urtekerea. Hirugarren egunean pasauko dira Arratiatik. Bilbotik 09:00etan urten eta Diman ordu erdi barru inguru egongo dira. Han, erlojupeko proba izango dau urtekerea. Dimako eskola aurreko parkinetik urten eta Lamindaora joango dira partaideak Areatzara bajatuteko. Antolatzaileen ustez, hori izan daiteke parterik ikusgarriena. Erlojupekoa amaituta, handik Barazarera eta Ubiderantza abiatuko dira.

Rallystone 2014 Bilbon amaituko da 13:00etan.

**Walter Röhl Saria**

Aurten Walter Röhl-ek Bilbon Firestone Rallya irabazi eba 40 urte betetzen dira eta antolatzaileak bere izeneko saria emotea irabazleari ebatzi dabe. Kantabria, Katalunia, Madril, Asturias eta Euskal Herriko lurralde guztietako partaideak neurtuko dira Rallystonean.

"Atzen urteetan auto kopurua murriztu bada be, faboritoak oster, gero eta gehiago dira" dino Juan Domingo Goti antolatutzakoak. Honen ustez aurten, podiuma egiteko posibilitadea daukie "gitxienez" hamar taldek. Aurten Rallystone irabazteko aukera handiak honek ditue: igazko irabazleak Madrazo eta Domingok (Kantabria), BMW 2002 Tii; 2011ko irabazleak Reketa eta Cepedak (Euskadi), VW Golf GTI; aurreko hiru urteetan beti podiumean egon diran Santamaria eta Renteriak (Euskadi-Kantabria), VW Golf GTI; Kantabria aldean trofeo ugari irabazi dabezan Colina eta Albok (Kantabria), Ford Escort Mk2; edo Espainia osoan trofeo ugari irabazi dabezan Pindado eta De Pablos-ek (Madrid), Porsche 911 SC.

**FULL-CONTACT**

**Aitor Ugalde zeberioztarra txapelduorde Espainiako Txapelketan**

**Erredakzioa**

Apirilaren 26 eta 27an jokatu zan Madrilan Espainiako Full-Contact Txapelketea. Larogeta hamar kilo baino gehiagoko kategorian, Zeberio Aitor Ugalde finalera heldu zan, zidarrezko domina irabaziz.

Urte osoan zeharreko lan onaren emoitzea dala dino Ugaldek. "Pozik nago, aurkaria esperientzia handikoa zan eta sano bardinduta egon ginan. Entrenatzailea be pozik dago eta bera pozik badago neu be bai" azaldu deutso bezturi.

**Hurrengo zitak**

Zeberioztarraren hurrengo zitak zehatu barik dagoz. "Espainiako iparraldeko txapelketa bat antolatu gura dabe orain, baina datak ez dagoz ipinita". Bitartean, berak orain arte moduan entrenetan jarraituko daua jakiarazu dau; hau da, astelehenerik zapatura 6 km. galapan egiten goizetan eta pare bat ordu teknika landuten arrastietan. Gainera Ugaldek garriko baltza lortu gura dau bagilean umei eskolak emoteko.

**Dia %**  
**PEDRO AUTOSERBITZU**  
Sabino Arana, 35 48.140 Igorre  
Tel. 94 631 15 26

**BIXER TABERNA**  
Beko kalea, 2 - Tel. 94 631 73 65 - VILLARO

**Recreativos Gubi S.L.**  
Angel Larrea  
Zornotza Tfnoa 649 86 95 36

*Los Chopos*  
neurritza egindako armairuak  
Avda. Los Chopos, 33 (Nagusi) Tel.: 94 430 40 94  
**Esposizioa eta fabrika Lemoan**  
Pozueta poligonoa, Lemoa 94 631 34 44  
[www.armariosloschopos.com](http://www.armariosloschopos.com)

**Igorren ARKITEKTOA**  
Aitzol Aurrekoetxea Pujana  
Lehendakari Agirre 23, behea  
[aitzol@coavn.org](mailto:aitzol@coavn.org) - 675 705 111

*Pinturas Aratia*  
Javi Morato  
Tel. 628 443 992

**Jose Luis Corbacho**  
**pintura lanak**  
Sabino Arana, 3. 3a Tfno. 94 673 70 87  
Igorre 48140 Bizkaia Tfno. 609 79 40 54

**ASIERABASOLO**  
%15eko DESKONTUA LEHENENGO LURTERO KUTXAN  
basola Emaldi  
Abokatuak  
620.57.86.04  
[asierabasolo@hotmail.com](mailto:asierabasolo@hotmail.com)  
Bilbao-Zeanuri

**KIRRU ILEAPANDEGIA SOLARIUM**  
Roberto eta Rosana  
Sabino Arana, 38 baxo - 48140 IGORRE (Bizkaia)  
94 631 92 00

**GARANTXE Autoeskola**  
TEORIA EUSKARAZ ZEIN ERDARAZ  
Baimena: A1, A, BTR, B  
Lehendakari Agirre 34  
3. floor. 94 673 71 32  
48140 IGORRE (Bizkaia)  
[garante@euskalnet.net](mailto:garante@euskalnet.net)

**ZEKUTZE**  
JATETXEA  
Sabino Arana, 24  
48140 IGORRE - Bizkaia  
Tel.: 94 631 52 83  
[zekutejatzetxe@hotmail.com](mailto:zekutejatzetxe@hotmail.com)

**umean moda**  
**sem**  
Gogoratu leku barrian gagozala  
Agirre Lehendakaria, 31 • 48140 IGORRE  
Tfnoa. 94 631 82 94 • [semoda@hotmail.com](mailto:semoda@hotmail.com)

**AKITEGIA**  
**GAY & LORA**  
**IGORRE**

**AHOLKULARITZA: LEGE-LAN ARLOAN**  
**ZUZENBIDE**  
ZERGA ETA DERU KONTUTAN ONDASUN HIGIZIEN ASIGURUTAN  
Sabino Arana, 3. floor. 94 673 71 41 - Fax: 94 673 94 61 - 48140 IGORRE

**BIZARGINAK**  
Ulea era klasiko eta modernoan ebagiten dogu  
Bixarra egin eta txukunduten dogu  
Elexalde, 20 Rober 630 743 543  
48.140 Igorre Manuel 661 848 793

**axular**  
Agirre Lehendakaria 4 - 94 673 70 92  
[axularke@gmail.com](mailto:axularke@gmail.com)

**ekin s.l.**  
LAN PUBLIKOAK  
INDUSKETAK  
GARRAIOAK  
UR SAREAK  
SANEAMENTU SAREAK  
BASERRI ETA BASOKO BIDEAK  
PABELLOAK  
URBANIZAZIOAK  
Iturriotz barrena 8 - 48141 Dima (Bizkaia)  
Tel.: 94 631 72 57 Faxa: 94 673 95 25  
e-posta: [cbras@construccioneseekin.com](mailto:cbras@construccioneseekin.com)

**ARRATIA AUTOESKOLA**  
karneta euskaraz zein erdaraz  
Gorbe, 10 - 48140 Igorre (Bizkaia)  
Telefona 94 631 36 31 Faxa 94 673 70 83  
e-posta: [uniozu@euskalnet.net](mailto:uniozu@euskalnet.net)

## TXIRRINDULARITZEA

# Paris-Roubaix Challenge hartu dau parte Julen Bilbaok

### Erredakzinoa

Paris-Roubaix Challengek txirindulari ez profesionalai hurrengo egunean profesionalak egingo dabenean ibilbidea egiteko aukerea emoten deutse. Aurten apirilaren 12an izan zan martxa gogor hau eta Julen Bilbao Igorrekoak hartu eban parte bertan.

Lasterketea izan ez arren, erronka gogorra da. Kaltzadatik doa ibilbidearen zati handi bat eta horregaitik, Iparraldeko infernua, *Hell of the North*, izenez ezagutzen da proba hau. Proba, Roubaix-eko belodromoan amaituten da, 170 km., 141 km. edo 70 km. egin ostean. Igorrekoak 141 km. egin zituan.

Belodromoan sartzea da "momenturik politena" Bilbaoren esanetan. Izan be, bertan familiakoak eta lagunak egoten dira martxea amaitu dabena argazkiak egiten.

### Profesionalen moduan

Profesionalak hurrengo egunean egingo dabenean bidea bakarrik ez, euren aldageletan dutxa hartu eta egoteko aukerea daukie parte hartzaileak. "Nire idoloa dan Fabian Cancellara-ren eserlekuan be egon nintzan apur baten, oso hunkituta" dino Julen Bilbaok.

Hurrengo egunean, Igorrekoa eta bere lagunak Compiègnen joan ziran profesionalen urtekera ikusteko.



Julen Bilbao.

## FUTBOLA

# Arratiak partidua irabazi dau

### Ainhoa Duñabeitia

Futbol taldeak denporaldiko atzen txanpan dagoz. Arratia B taldeak oporrak izan ditu Aste Santuan eta andrazkoak denporaldia amaitu dabe. Gizonezkoen lehen taldeak bakarrik izan dau partidua eta irabazi egin dabe berau arratiarrak.

Hilaren 27an izan eban norgehiagokea gizonezkoen lehen taldeak etxean. Aranguren izan eban aurkari arratiarrak. Partiduko 3 puntuak lortu ebezan gol bi egin ostean. Hurrengo norgehiagokea etetik kanpo jokatuko dabe Begoñaren kontra.

Gizonezkoen bigarren taldeak barriz, Aste Santuko oporren ostean atsedena izan eban. Hurrengo norgehiagokea maiatzaren 3an izango dabe Lemoaberri taldearen aurka, Arratiako talde bien arteko derbia, beraz.

Andrazkoak, denporaldia amaituta, Euskal Kopa prestatzen dabiz.

## BOLA JOKOA

# Txapelketak

### Maite Arrizabalaga

Apirilaren 26 eta 27an, Bizkaiko Binakako Bola Txapelketea jokatu zan Epaltzako bolatokian. 25 bikotek hartu eban parte eta aurten be, Jose Luis Arregi "Txakalin" eta Pedro Luis Uribami "Urtain" izan dira irabazleak. Bikote honek zazpi txapel daukaz irabazita eta jarraian irabazi dabenean laugarrena izan da. Igazko moduan Beñat eta Eneko Gorosperen kontra izan zan finala. Atzenengo hau txapelketan egon dan arratiar bakarra izan da.

Komarkalari jagokonean amaituteko hiru tirada baino ez dira falta; maiatzaren 10ean Artaunen eta 17an Zornotzako "Gure Kirolak" bolatokian izango dira hurrengo biak. Gisetza taldea da lehena, Lemoa bosgarren da, Oba zortzigarren eta San Kristobal hamaikagarren.

Banakako Txapelketan ostera bigarren eta hirugarren Eneko Gorospe eta Felix Valerak egin eban, biak bizi dira Igorren. Aurreko zenbakian (206.) datu hau ez eban zuzen emon BEGITUK.

## ORIENTAZINOA

# Orientazino proba eta burruka erakustaldia



### Erredakzinoa

Hilaren 10erako, AKKBk (Areatzako Kirol eta Kultura Batzordea) eta AKKTK (Arteko Kultur Kirol Taldea) orientazino proba herrikoia antolatu dabe. Urtekera eta helmuga Areatzako plazan izango da eta proba, mapa eta brujulea erabiliz, baliza gehien topatzean datza. Arrastian, burruka erromatar erakustaldia egongo da Areatzako frontoian.

UP-O Rogaine orientazino proba goizeko 10:00etan hasiko da eta hiru orduko iraupena izango dau. Bertan taldeka hartzean da parte, 2 eta 5 persona arteko taldeetan, hain zuzen. Izena aldeztatik emon behar da AKKB edo AKKTKren webguneetan.

Eguerdian parrilladea egongo da

proban parte hartu dabenezat.

### Burruka greko-erromatarra

Arrastiko 16:30ean burruka greko-erromatarren erakustaldia egongo da frontoian. Burrukalariak Bizkaiko Borroka eta Sanbo Federakuntzakoak dira. Burrukalarien artean, Espainiako txapeldunak eta Espainia mailan dominak irabazitakoak dagoz. Roberto Hojas -Euskadiko Borroka eta Sanbo Federazinoko zuzendari tekniko- izango da entrenatzailea. Ikusleen artean, Maider Unda egongo da. Maider Undak brontzezko domina lortu eban 2012an Londreseko Olinpiar Jokoetan, Espainiako Txapelduna izan zan 2013an eta zidarra irabazi eban 2013ko Europako Txapelketan.

## MENDIA

# Ubideko Bira hilaren 11n

### Erredakzinoa

Goizeko 08:00etan ibilbide luzea (28 km.) egin gura dabenean eta ordu erdi beranduago ibilbide laburra (16 km.) egiteko asmoa daukienak batuko dira Ubideko herriko plazan. Ibilbide luzea egiten dabenean Gorbeaiko tontorra zapalduko dabe. Edozein ibilbide aukeraturik be, paisaje ederretatik pasauko dira mendizaleak eta bidean egindako argazkien lehiaketea be egongo da.

Ibilbide laburra egiten dabenean Ubide, Siskino, Oketa, Muruako harrobiak, Lexaranda, Atxurdi, Zubizola

eta Ubide egingo dabe. Luzea egiten dabenean, barriz, Muruako harrobietan beste bide bat hartu eta Mairulegorreta, Azero, Gorbeia, Aldaminape, Arimekorta, Atxuri, Saldropo, Bastera, Upete eta Kaltzadatik pasauko dira Ubidera heldu baino lehen.

Izena emon daiteke egun berean, 07:30etik urtekera ordura arte edo interneten bidez ubidekobira.es.tl webgunean.

### Argazki lehiaketea

Ibiltariak bidean argazkiak egin eta argazki lehiaketan parte hartu daikie. Argazkiok ubidekobira@gmail.com

## BIZIKLETEA

# Julen Zuberok Titan Desert-en lehen etapea irabazi dau

### Erredakzinoa

Ondino amaitzeko etapa baten faltan, Marokoko basamortuko Titan Desert izeneko lasterketa gogorraren etapa bi irabazi dauz Julen Zuberok lemoztarrak (Powerade). Lehenengo eta laugarrena, hain zuzen be.

Lehenengo etapea irabazita, lideraren kamisetea jantzita ekin eutsan bigarren etapeari. Lasterketea apirilaren 27an hasi zan eta maiatzaren 2an amaituko da. Jaffar mendiatak Erg Chebbi-ko dunetarako 700 kilometroko ibilbidea egingo dabe txirindulariak. Lemoztarrak irabazitako lehenengo etapea 120 km. eta 2.134 m.ko desnibelekoa izan zan. Laugarrena be irabazi eban Zuberok, harea artean eta bero handiagaz 120 km. egin eta gero.

Laugarren etaparen amaieran Ibon Zugasti (ProBike) zan liderra eta bigarrena Fojtik txekiarra.



helbide elektronikora edo Ubideko Bira, San Juan 4, 48.145 Ubide (Bizkaia) helbidera bialdu behar dira. Flicker-en ipintzen dabez gero argazkiok eta urrietan aukeraturik dabe irabazlea. Saria Urbide jatetxerako persona birentzako bazkari edo afari txartela da.



**HERRIKO BENTA**  
HOSTAL  
HERRIBO PLAZA  
48142 ARTEA (BIZKAIA)  
TEL. 94 631 72 56

**begitu**  
arratia ubide zeberio

**Okindegia**  
+ Ke... PAN  
Etxean bertan egindako pastelak

**IGORRE**  
Lehendakari Agirre 11  
94 656 65 52

**AREATZA**  
Golkokale  
94 608 90 47

## IBILALDIA

## Zeanurin zehar errotarik errota

## Jon Urutxurtu

Maiatzaren 4rako prestatu dabe Joko Alai eta Ipizki Taldeak 2014ko Zeanuriko Erroten Ibilaldia. Aurten bederatzigarren edizinoa beteko dau oinezko marxa honek eta antolatzaileak adierazo dabenez helburuak hasikerako berberak dira: "alde batetik, herritarrei zein kanpotik hurreratzin diran bisitariak Zeanuri eta bere auzoak ezagutzera emotea; eta bestetik, Zeanuriren historian errotrak izan daben garrantzia ezagutarazotea". Ez dira gitxi, izan be, hemi honetan ezagutzen diran edota han-hemenka azaltzen diran errotrak edo erroten arrastoak, guztira hamazortzi, danak hidraulikoak. Ibilbidean zehar bederatziren ondotik igaroko dira ibiltariak eta bitan —Ibargutxin eta Olabarrin— sartu-urtena egiteko aukerea izango dabe.

## Ibilbide bi: luzea eta laburra

Ibilbide bi prestatu dabez antolatzaile-

leak, bata luzea, 18 kilometrokoa, eta bestea, laburragoa 12 kilometrokoa, jan-edana bananduko dan tokitik helmugara zuzentzen dana.

Urtekerea herriko plazan izango da, goizeko 09:00etan; plazatik, udaletxearen aurretik abiatuz eta Alziber eta Errotabari erroten ondotik pasau ostean, Undurragako urtegiaren ertzetik jarraituko dabe partehartzaileak. Urtegia atzean itxi bezain laster Barrengoerrota aurkituko dabe, Beretxikora errekatxoaren ertzean. Agarre izeneko baserrien ingurutik aurrera eginaz, Undurraga auzunera jaitsiko dira Ibargutxiko errotarako bidea hartzeako; hemen, atea zabalik izango dira, eta gura dabenak kuku bat egin eta errotea lanean ikusi ahal izango dabe. Ibargutxitik Lanbreabeko errotera, eta hemendik barriro Undurragako urtegiaren ertzetik ekingo deusie bideari —oraingoan beste aldetik—; presatik 100 metro atxina, Alkibe-

rrin, indarrak barritzeko jan-edana bananduko dau Gastronomía Cantabricak. Aurrerantzean, lehenengo Otzerinmendi auzunean eta gero Uriben sartuko dira ibiltariak, eta Intxaurbeko, Axpeko eta Zulaibargo erroten ingurutik igaro ostean, atzen kilometroa betetzen hasiko dira; helmuga baino 300 bat metro lehenago ibilbideko atzen errotea azalduko da, Olabarrikoa —Pujana familiak zaharbarritua—, eta bisitetako aukerea izango da, ate batetik sartuz eta bestetik atereaz, Zeanuriko plazara heldu eta ibilaldiari amaiera emon aurretik.

Ibilbidea burutzerakoan, 18 kilometro eroango dabez oinetan ibiltariak, baina ziur ziteari erantzuteak mereziduko deusela, erroten ondare historiko-etnografikoa ezagutzeaz gain, udabarrian naturak azaltzen dauan koloreen sinfoniaz gozatzeko aukerea izango dabe eta.

10:30ean.

Beste kontzertu didaktikoa Abeltxuriak taldearen Euskal Herriko instrumentuen inguruko izango da hilaren 14an. 6 eta 8 urte bitarteko umeentzat da hau, Hala Dzipo musika eskolako irakasleak sortutakoa.

Nagusientzat beste kontzertu bi eratu dabez batzordekoak. Lehenengoa, Arozenatarrak emongo dabe hilaren 7an, arrastiko zortziretan Udal Aretoan izango da. Xanet, Urko eta Aitor Arozena anaiak eta Oiartzungo txistulariak, txistu mundua aurkezten dabe umorez betetako saio baten. Kitarra, perkusino eta txistu formatoan, Gorosarri edo Ansorenaren piezak edota Europe edo AC/DC-en piezak eskeiniz.

Nagusientzako bigarrena, Bilboko txistu bandak eskeiniko dau. Hilaren 14an izatekoa zan baina 21ean izango da arrastiko zortziretan Udal Aretoan. "Txistuaren erreperitortik biaje bat egingo dogu betiko piezetatik hasi eta Xabi Zabalak beren beregi Bilboko txistu bandarentzat idatzitako obrak amaituz" dino Garciak. Txistuak, jantzariak, abeslariak, pianoa... eukiko dabez lagun kontzertu honetan.

## Folk jardunaldiak

Ziklo hau maiatzaren 17 eta 18an egingo diran folk jardunaldiak amaituko da. Egun horreetan, euskal folk-a landuko da tailerretan. Arantzartek, Hala Dzipok, Bizkaiko gaiteruak, Aiko taldeak, Hala Dziporen fanfarreak, Areatzako txistulariak, eta Sestao, Deusto eta Areatzako erraldoiak eta Baztango mutil jantzak emongo dabez ikuskizunak.

## Ibargutxi eta Olabarri errotrak

Ibargutxi: Ipiñaburuko kofradian dago. XIX. gizaldian burdinolea izan zan. Gaur egun harri bi badaukaz be, hiru harrigaz egin eban behar. Hirugarren harri hori garagarra eta pentsuak eihotzeko erabilten zan, eta Ibargutxiko etxea eta beste harri biak dagozan eraikinaren behealdean kokatzen zan, errotarri bi horreek mobiduarazoten ebazan ura aprobetxetako. Hirugarren harriak 1950erantza itxi eutsan lan egiteari.

1945ean errotearen azpiko aldean turbina bat eta generadore bat jarriz argindarra ekoizten hasi ziran Ibargutxin, eta 1978ra arte gitxi gorabehera Altxua, Ipiñaburu eta Undurragako baserri batzuetara saltzean eben elektrizidadea.

Ibargutxiko errotearen instalazioak guztiz zaharbarrituta dagoz, eta oraindino, txitean-pitean etxerako garia edo artoa eihotzen dabe jaubeak; horrezaz gainera, generadorearen bitartez etxerako argindarra be ekoizten dabe.

Azken errotraria Gabriel Larrazabal izan zan. Gaur egun Bitoriano, Satur eta M<sup>a</sup> Jesus bere seme-alabak dira jaubeak, eta errotea zaharbarritzeaz eta inguru txukun-txukun mantentuzteaz arduratzen diranak.

Olabarri: Ibarguen kofradian dago. Jatorriz burdinolea izan zan eta Zeanuriko patronoa zan Arriola familiaren jaubetzea. Pu-

janatarren aurretik Manterola familiak ustiatu eban, 1898ko zemendiaren 30ean, San Andres egunean, Isidro Pujana, errentari moduan, errotearen kargu egin zan arte. XX. gizaldiaren erdirantza Benigno Pujanak —Isidroren semeak— errotea erosi egin eutsen Arriolatarrak. Benignok errotrari lanetan jardun eban 1995eko urri bigarrenaren 11n hil zan arte. Aitaren heriotzearen ostean, Fermin semeak errotearen zaharbarritze lanai heldu eutsen eta hor darrai gaur egun be jo eta ke apurka-apurka txukunduz.

Olabarriko erroreak hiru harri daukaz eta, gehienbat arrazoi sentimentalakaitik bada be, betiko bezeroen eskariari erantzuteko lanean darraien Zeanuriko errota bakarra da. Benigno Pujana —herriko azken errotrari profesionala— hildakoan, bere alaba Ana Mari izan da lekukoa hartu dauana, azken ehun eta hamaika urteetan familiaren ogibidea izan dan ofizioa bizirik mantenduteko.

Errotearen ondoan burdinolearen arrastoak azaltzen dira eta gaur egun, hormak zaharbarritzen dabilz. Burdinolean erabilitako balantzea be errotran gordetzen da.

Errotagintzeari buruzko gorabeherak ezagutu gura dabezenek Olabarri hurreratzea baino ez daukie, Pujana familiak bisita gidatuak antolatzen dauz eta.

## AKKB



Arozenatarrak.

## Folk, jazz eta musika klasikoa AKKBren eskutik

## Erredakzinoa

Datorren hiruhilabeteko AKKBren (Areatzako Kirol eta Kultur Batzordea) programazino musikalak hiru atal ditu. Maiatzako lehen hamabostaldia euskal folk musikari eskeiniko deusie, bigarren hamabostaldia bateria eta jazzari eta bagileko lehen hamabostaldia, barriz, musika klasikoari.

Maiatzako lehen hamabostaldi honetarako antolatutako musika eskeintzearen helburua, Euskal Herriko instrumentuak ezagutzea eta bere inguruan talde desbardinak egiten dabizen atzen lanak aurkeztutea dala dino Asier Garcia AKKBkoak. Honetarako ziklo bi programau dabez, bata umeen-

tzat, Hala Dzipo musika eskolaren laguntzaz, eta bestea nagusientzat. Ziklo bi honeek hilaren 17 eta 18an eukiko dabe amiaerea, Aiko taldeagaz batera antolatutako Erromeri Egunean eta jantza astegoienez.

## Kontzertu didaktikoak

Umeentzat, Hala Dzipo musika eskolak emonda, kontzertu didaktiko bi prestatu dabez Areatzan. Lehenengoa, *Maddi eta txalaparta*, 2 eta 5 urte arteko umeentzat. Idoia Kareaga txistulariaren bigarren liburua da *Maddi eta txalaparta*. Lehenengo liburuaren, *Maddi eta txistua*, arrakastearen ostean, orain bigarren liburua aurkezttera dator. Hau maiatzaren 7an izango da Udal Aretoan goizeko



Ana Mari Pujana Olabarriko errotran.

## Ibilaldiari buruzko zehetasunak

Eguna: maiatzaren 4a, domekea.

Izena emotea: 08:30etik aurrera, herriko plazan. 4 €.

Urtekerea: 09:00etan.

Ibilbidea: 18 kilometro inguru; ibilbide laburrak 12 kilometro.

Jan-edana: Alkiberren jan-edana bananduko dau Gastronomía Cantábrica-k. Errotak lanean: ibilaldiaren hasieran Ibargutxiko errotran eta amaieran Olabarrikoan sartu-urtena egiteko aukerea izango dabe ibiltariak.

Antolatzaileak: Ipizki Taldea eta Joko Alai Alkartea.

Laguntzaileak: Gastronomía Cantábrica, Lankidego Lantalde, Zeanuriko Udala, Gorbeialde, Sagarna Txokoa, Zeanuriko Jubiladuen Tabernea eta Arratiako Gurutze Gorria.

## BERTSOLARITZEA

# Arratiako finala hilaren 4an Igorren

Martxan dagoz Bizkaiko Eskualdeetako Bertsolari Txapelketak.

### Erredakzioa

Abendurainoko ibilbidea eukiko dau, baina daborduko hasi da martxan Bizkaiko Bertsolari Txapelketea 2014.

Lehenengo fasean, Eskualdeetako Bertsolari Txapelketak jokatu dira, eskualdez eskualde, bakoitzean txapelkun bana izentau arte. Danera zortzi eskualdek osotzen dabe Bizkaiko mapea. Maiatzean jokatu dira final guztiak.

Arratiari jagokonean finala maiatzaren 4an izango da Igorreko Lasarte Aretoan arrastiko 17:30ean. Parte hartuko daben bertsolariak honeek izango dira: Irati Astondoa Zuluaga, Aitor Asua Basterra, Irati Bernaola Sagardui, Illart Gumuzio Larrazabal, Iñaki Iturriotz Zu-

Igorren, maiatzaren 4an, domeka, 17:30ean, Lasarte aretoan



Finalean parte hartuko daben sei bertsolariak.

luaga "Iturri" eta Igor Menika Bengoetxea. Arratiako txapelkunak udagoieneko kanporaketetan parte hartuko dau zuzenean. Aitor Asua ez daukaz 18 urte. Horregaitik, puntuau barik kantauko dau txapelketan. Beste bostak lehiatuko dira Arratiako txapela janzteko.

"Oraindino ez dakigu aurretik inoz finalista izan diranetatik zenbatek emongo daben izena. Horreek bagilaren hasieran eukiko dabe aukerea txapelketan izena emoteko. Hor izena emoten dabenak kontuan hartu, eta 30era arte geratzen diran postuak eskualdeetako finalerako puntuazioaren arabera beteko dira" dino Maddi Ibaibarriaga Bizkaiko Bertsosale Alkarteko komunikazio arduradunak.

Orain urte bi, Iñaki Iturriotzek jantzi eban Arratiako txapela.

## IPIIN KONTALARIA

# Ume eta nagusientzako ipuinak Ines Bengoak

### Erredakzioa

Ines Bengoa ipuin kontalaria maiatzaren 9an egongo da Igorreko Kultur Etxean, hiru ipuin kontaketa saio eskeiniz: umeentzako bi eta helduentzako beste bat. Lehenengo saioa seiretan izango da eta 4-5 urteko umeentzat da aproposa. Honen ondoren beste saioa bat 6 eta 9 urte bitarteko umeentzat eta, azkenik, 20:00etan, *Goazen gezurak kontatzera* titulupean, helduentzako ipuinak kontauko ditu Bengoak.

Ines Bengoak "forma, tamaina,

leku eta publiko desbardinentzako" ipuin saioak ditu. *Pablo Sarasate, Biolinaren magoa, Ipuin tradizionalak, Berdintasuna maite dugulako, Kamishibai, Karabi karaba, Sorginak eta monstroak, Munduko ipuinak* eta *Margo-ipuina* dira umeentzat daukan kontaketa aukera zabala. Ipuin kontaketaz gainera, umeentzako animazioak eta gidatutako bisita antzeztuak be egiten ditu.

Helduentzat barriz, *Goazen gezurak kontatzera* eta *Zer darabagu emakumeak poltsoan* izeneko ipuin saioak ditu.




## AISIA

# Udalekua Zaztaparrakaz

### Erredakzioa

Aurten hemeretzigarrenez, Zaztaparrak Asti Taldeak udalekua antolatu dau Abuztuaren 4tik 15era. Baratzte, Bizkaiko herri txiki bat, izan da Arratiako umeen gozamerako Zaztaparrak-ek aukeratu-

tako lekua. Matrikulazioa maiatzaren 9 eta 10ean egingo da Igorreko Lasarte Parkean. Maiatzaren 9an arrastiko 18:00etatik 20:00etara, eta 10ean goizeko 11:00etatik 13:00etara. Umea apuntetako beharrezkoak dira datu honeek: izen abizenak, jaiotza data, helbide elektronikoa eta kontakturako telefonoa. Prezioa umeko 202 eurokoa da, nebarreba bik 357 euro eta 535 euro ordaindu beharko dabe hiru nebarreba izena emon ezker.



## DUNBA

# Batzuen ustez, zeintzuk dira munduko zazpi mirariak?

### Arteko eskolako 3. eta 4. mailako ikasleak

Guk kurso honetan zehar, proiektu desbardinak landu doguz: Lehenengo hiruhilabetean, "Persia" (Inperioak, gerra medikak, erregeak...) eta bigarren hiruhilabetean "Errezetak" eta "Munduko zazpi mirariak". Gura dozue jakin zeintzuk diran gaur egungo zazpi mirariak?

2007ko garagarriaren 7an, Lisboan (Portugal) aukeratu zituen eta honako honeek dira: Petra, Txinako Harresia, Cristo Redentor, Machu Pichu, Taj Mahal, Chichén Itzá eta Erromako Koliseoa.

-PETRA: Jordaniako leku arkeologiko bat da. Aravah haranaren ekialdean dago eta edomitak k.a. VII. mendean sortu eben. Arrokan zizelaturiko eraikinak itik ezaguna da, Khazneh

(altxorra) eta Deir (monasterioa).  
-TXINAKO HARRESIA: Shi Huang-ti enperadoreak harresi handi bat egin eban hunoak ez erasoteko. Soldaduak, baserritarrak eta artisauek egin eben eta 400.000 persona hil ziran, batzuk harresian lurperatuta eta beste batzuk harresia eregiten. Horregaitik esaten dabe munduko kanposanturik handiena dala. Harresitik "Ruta de la seda" ospetsua pasetan zan.  
-CRISTO REDENTOR: Brasilen dago, Rio de Janeiro urian. 38 metro ditu eta bere oinarriak 8 metro. Paul Landowskik zizelkatu eban eta 1.931ko urri bigarrenaren 12an inauguratu eben.  
-MACHU PICHU: Peru dago, Cusco uritik 130 km.tara. Inken uriburu zaharra da. Pachacutec-en (lehenengo enperadore inka, 1.438-1.470)

atsedenerako egoitza bat izan zan. Gaur egun, planetaren turismo-jomuga ezagunetarikoa bat bihurtu da. -CHICHEN ITZA: Yucatán peninsulako gune arkeologikorik garrantzitsuenetako bat da, Mexikon. Chan gizataldeak 525 urtean sortu eban. Chichen-en erdigunean, Gazteluan, Kulkulkanen (lumadun sugea) tenplua dago eta udabarriko eta udagoieneko ekinozioetan egusentian

eta ilusentian, piramidearen ertzak itzal mailakatu bat sortzean dau, lumadun suge baten itzurakoa. Itzal hau beherantza doa eskailera oinarrian dagoan suge buruagaz bat eginik. -TAJ MAHAL: Indian dago, Agra urian, Yamuna ibaiaren ondoan. Mausoleoan hilobi bi dagoz: Mumtaz Mahal-ena eta Shah Jahan-ena. 22 edo 23 urte iraun zituen Taj Mahal



3. eta 4. mailako ikasleak.

eregiten. Mumtaz Mahal printzesaren omenez eregi eben. -ERROMAKO KOLISEOA: Hasikera baten Flavioren anfiteatroa deitzen zan eta geroago Colosseum izena ipini eutsien ondoan dagoan Neongo kolosoaren estatuarengaitik. 50.000 ikusle sartzean ziran eta bertan gladiadoreen burrukak eta ikuskizun desbardinak egiten ziran. Bere inaugurazioak 100 egun iraun zituan eta bertan, egun batean, 5.000 animalia baino gehiago eta hamarnaka gladiadore hil ziran. Behar bada, hemendik urte batzuetara, Euskal Herrian daukagun leku zoragarrietarikoren bat, munduko zazpi mirarien zerrenda honetan ikusteko aukerea izango dogu.

## AGENDEA

## MAIATZAK 2

## DIMA

19:30ean, "Diman etxean gura doguz" errepresaliaduen aldeko kontzentrazioa plazan.

20:00etan, Bertso saioa. Rosi Lazkano, Onintza Enbeita, Uxue Alberdi eta Nerea Ibarzabal. Gai-jartzailea Ainhoa Aranburu. Dimako gaztetxean.

## IGORRE

"Ingurugiroaren parte izan" izeneko argazki lehiaketara marban.

Hilaren 31ra arte Miguel Sanz Etxebarriaren erakusketa. Kultur Etxeko erakusketa gelan.

Hilaren 12ra arte, Jubiladuen txangoan izena emoteko epea zabalik. Txangoa Benidormera hilaren 24tik baglaren 2ra arte.

19:30ean, monologoa+sandwichpote. Merche Pichon. Kiñu Gaztetxean.

## LEMOA

Maiatzaren 30era arte, Euskal Jairako bartelak salgai udaltzeko. (Euskal Jaia baglaren 7an).

Maiatzaren 4a amaren eguna dala eta, ludotekan tailer berezia.

## ZEBERIO

19:00etan Santa Kurtze jaia. Egitaraua 5. orrialdean.

## MAIATZAK 3

## AREATZA

Santikurutz jaia. Ikusi egitaraua 5. orrialdean.

## IGORRE

11:00etan, "Lanegune" Kiñu Gaztetxean.

Alderdikide Eguna. Ikusi egitaraua 7. orrialdean.

## ZEBERIO

10:00etan, IV. Untzeta Mendi lasterketa.

## MAIATZAK 4

## AREATZA

19:00etan Gure Esku Dago.

## ARTEA

10:00etan, AKKTK antolatuta Ilunbera urtekera. Herriko plazatik.

## BEDIA

Urtekera Baronako torrea eta jauregia. Gangurenak eratuta.

## DIMA

09:30ean, Rallystone. Erlojupeko proba.

## IGORRE

17:30ean, Eskualdetako Bertsolari Txapelketako

Aratiako finala Lasarte Aretoan.

19:00etan bideoa emonaldia *Lucio Urtubia: anarquista, falsificador, atracador, pero sobre todo albañil* eta palomitak. Kiñu Gaztetxean.

## ZEANURI

09:00etan Zeanuriko Erroten IX. Ibilaldia.

## MAIATZAK 5

## BEDIA

Hilaren 16ra arte, "Lehenengo laguntza" ikastaro oinarizkoan izena emotea. Liburutegian.

Hilaren 9ra arte, Txobxongilo museora (Tolosa) urtekerarako izena emotea. Urtekera hilaren 17an.

17:00etatik 20:00etara, hilaren 16ra arte argazki erakusketa: Gabonetan egindako jarduerak.

## DIMA

Sukaldaritzako ikastaroan izena emoteko atzen eguna.

## LEMOA

18:30ean, "Espazioak eta denporak marrazten, jentarte justuago baterako" tailerra. Jubiladuen Etxeko goiko aretoan.

## MAIATZAK 6

## LEMOA

18:30ean, Lemoako Pilota Eskolak antolatuta, Kepa Lizarraga kirol medikuaren berbaldia "Frontoiko kirolak eta osasuna". Jubiladuen Etxeko goiko aretoan.

## MAIATZAK 7

## AREATZA

10:30ean, AKKBk antolatuta, *Maddi eta txalaparta* liburu aurkezpen eta kontzertu didaktikoa. 20:30ean, Arozenarren kontzertua Udal Aretoan.

## DIMA

19:00etan, Sukaldaritzako ikastaroa Landaburu Txokoan.

## LEMOA

19:00etan, Udaleko Euskera Zerbitzuak antolatuta, Jon Arretxegaz Irakurle Kluba Elizondoko Kultur Gunean.

## MAIATZAK 8

## LEMOA

17:00etatik 19:00etara, Lemoako Udaleko Kultura Zerbitzuak antolatuta, Ander Gilleneak argazki emonaldia "Gure historiaren pasarteak". Elizondoko

Kultur Gunean.

19:00etan, Arratiako Musika Eskolako ikasleen kontzertua eleizan.

## MAIATZAK 9

## AREATZA

21:00etan Inun. CD barriaren aurkezpena. The Quiet Corner tabernan.

## DIMA

*Euskal Herriko alborretan barrena* filma.

## IGORRE

18:00etatik aurrera Ines Bengoaren eskutik, ipuin kontaketa.

19:00etatik 23:00etara, maiatzeko erromeria flamenkoa Olabari auzoan. "Las baikas" tabernaren aurrean eta Trokan jaieren amaiera.

19:30ean, Igorre Kantari kantu-pote Gau Loratik.

20:00etan Lasterbidean lasterketarean aurkezpena. Kultur Etxean.

## LEMOA

Elikagaien manipulazte ikastaroan izena emoteko atzen eguna. Udaltzeko.

19:00etan, Ganzabalek antolatuta, "Stretching". Jubiladuen Etxeko goiko solairuan.

## ZEANURI

19:00etan, *Gazta zati bat* filma Kultur Etxean.

## ZEBERIO

20:00etan, *Ibáñeko barrankue* (Gorbeia) eta *Chamonix-Zermatt. Alpeak eskiakaz* filmen



## Ondoko hilobiko tipoa antzezlan

Txalo Produzioak-en eskutik *Ondoko hilobiko tipoa* antzezlan ikusi ahal izango da Igorreko Lasarte Aretoan maiatzaren 9an, barikua, arrastiko 20:00etan.

"Nork esan... Neska pinpirina baserrian! Eta baserriar bat operan? Aiora (Aitziber Garmendia): polita, gozoa eta alarguna. Pablo (Iker Galartza): zeke-na, egoskorra eta ezkonbako. Bi mundu desbardin leku berean. Bata bestearen ondoan, kanposantuan. Aiora eta ondoko tipoa... Pablo. Irribarre leun bat, oster, nahikoa izango da protagonista bien arteko sua bizteko".

proiektzioa Ermitabariko Taberna Zarran.

## MAIATZAK 10

## AREATZA

10:00etatik 20:00etara, txobxongilo egiteko tailerra.

09:00etan, AKKBk eta AKKTK antolatuta, orientazio proba herriko plazan.

## DIMA

Gure Esku Dago, herrian egun osoko jaia.

## IGORRE

22:00etan zinea *12 años de esclavitud*.

## LEMOA

Ganzabal Mendi Taldeak antolatuta, umeen urtekera Sukarrietara. Katillobu (336 m).

19:00etan, *Ez da kasualitatea* bertso-saio musikatu Elizondoko eta ondoren, "Harro bizi euskaraz Lemoan" bideokliparen *making off*.

## ZEANURI

Gure Esku Dago-k antolatuta egun osoko jaia.

20:00etan, Udalak antolatuta, Jokaldigaz erromeria.

## MAIATZAK 11

## AREATZA

08:00etan, Laminio Mendi Taldeak urtekera, Beriain (1.493 m.) Eleiz portikuan.

## DIMA

Dantzari Txiki Eguna. Ikusi egitaraua 6. orrialdean.

## IGORRE

17:30ean, umeentzako zinea *Las aventuras de Peabody y Sherman*. 19:30ean, zinea *12 años de esclavitud*. Lasarte Aretoan.

## LEMOA

Ganzabalek antolatuta, Bargagain (1153 m.)-Baiza

(1182 m.).

13:00etan, Mendieta Herri kirol taldeak antolatuta desafio herrikoa: aizkoran eta trontzan. Elizondoko.

## UBIDE

Ubideko Bira 08:00etan ibilbide luzea (28 km.). 08:30ean, ibilbide laburra (16 km.). Urtekera herriko plazatik.

## ZEANURI

Auzoen arteko Futbol Txapelketa Undurragak zelaian.

## ZEBERIO

Austari Mendi Taldeak urtekera Goñi-Beriain-Unanu.

20:00etan, zinea *Amor*.

## MAIATZAK 12

## BEDIA

17:00etatik 20:00etara, hilaren 30era arte, jaietako paella egunean parte hartzeako izena emotea. Liburutegian.

## LEMOA

10:00etatik 13:00etara, Elikagaien manipulazte ikastaroa Elizondoko Kultur Gunean. Hilaren 13an be bai.

19:00etan, Haur eta gazteai zuzendutako udako planak ezagutzeko Udalak antolatutako programazioaren aurkezpena. Jubiladuen Etxeko goiko aretoan.

## MAIATZAK 14

## AREATZA

10:30ean, AKKBk antolatuta, Abeltzuriak taldeak kontzertu didaktikoa Udal Aretoan.

## DIMA

19:00etan, Sukaldaritzako ikastaroa Landaburu Txokoan.

## MAIATZAK 15

## IGORRE

20:00etan, Zine Kluba: zinema afrikarra. *Le Franc/ La petite vendeuse du soleil*. (Djibril Diop Manbety, 1994 eta 1999).

## LEMOA

18:30ean, Parekidetasun Plana kontrastetako bilera Udaleko Pleno Aretoan.

## ZEANURI

10:00etan, Abere, Artisau eta Nekazaritza Produktuen Azokoa. Ikusi egitaraua 5. orrialdean.

## IRAGARKI LABURRAK

## SALDU

## SALGAI

Tabernarako kafeterea eta molinilloa salgai. Gaggia Nera markakoa. 600 eurotan. 619 728 188 (Unai).

## AUTOA SALGAI

Daewoo Tacuma 5 atedun autoa salgai, 10 urte. 104.000 Km. Interesdunak 94 631 79 06 telefonora deitu (Iñigo).

## HIZTEGI ENTZIKLOPEDIKOA

## SALGAI

Lur Hiztegi Entziklopedikoko 10 tomo salgai, egoera onean, barriak legez. Interesdunak idatzi mezu bat e-mail honetara: l\_laztana@hotmail.com.

## FURGONETEA SALGAI

Nissan Primastar 2000dci 115 zaldidun furgonetea saltzean dogu, kanpinerako prestaturia. 2009 urtekoa 120.000 km. Carry bike eta toldoa dauka. Telefonoak: 629 624 688 eta 637 861 936.

## EROSI

## TRIKITIXEA EROSIKO NEUKE

Trikitixa esku soinua erosiko neuke. 653

716 691 (Jon Andoni) telefonora deitu.

## DANERIK

## TXAKURRENTZAKO LEKU BILA

Nire txakurrak eukiteko leku txiki bat topetan nabil Igorren (680 518 473).

## TRASTELEKU BILA

Trasteleku bila nabil. Merkea, 30 euro inguru. Interesdunak deitu 656 742 768 (Bego) telefonora.

## JANARIA PRESTATZEKO

## ANDRAZKOA BEHAR DA

Andrazko bat behar da persona birezko janaria prestatzeko eta etxeko beharrak egiteko. Bost egun astero eta lau ordu egunero. Legezko lan kontratua. Alberto: 695 743 685 eta 656 711 704.

**Zeozer saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat. [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com)-era. Mezuak doban dira.**

## Begitu-lagunen txokoa

## Zenbaki honetako saridunak:

**1** Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera *12 años de esclavitud* filmarako.

Amaia Arauzo (Ziortza-Bolibar)  
David Ibarra (Dima)



**2** Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera *Ondoko hilobiko tipoa* antzezlenerako.

Nagore Lekue (Areatza)  
Aiala Landajo (Igorre)




Zerturen argitalpenak jasoko dozuz,

zozketetan sartuko zara.

BEGITUK 11 urte eta ehundaka lagun.

## DENPORA-PASA

IMAN OLATU




### EZKERRETIK ESKOIERA

1.- Ibiltalditxo bat emon. 2.- Luki. Bokala. 3.- Burla. Lau odol taldeetako bat. 4.- Lur biguna. 5.- Letra bat. Limitea. Konsonante bat. 6.- Albait. 7.- Nori atzizkia. Eguzkia. 8.- Erdiko bokala. Jausi. 9.- Poztu.

### GOITIK BEHERA

1.- Greziako mitologian, Arkadiako artzainen jainkoa. Ordari. 2.- Narru. Persona izenordaina. Bokala. 3.- Egundo. Jainkoa, hizkuntza semitikoetan. 4.- Enplegua. 5.- Min daukagunean. Andrazale. 6.- Uranioa. Emea ez dana. ... edo zart. 7.- Kimu. Euskera zaharrean, botoi-zulo.



Topau zientzia fikzinozko zazpi pelikularen izenak.



# AKIMIKO

Zorrozkiilo



Zugaitik **BEGITU**ten dogu  
A.P.I. 495  
[www.inmobiliarialarrea.com](http://www.inmobiliarialarrea.com)  
Lehendakari Agirre, 8 behea  
48140 Igorre  
Tfnoa: 94 631 80 04

**bbk**

**ASESORIA Gorbeialde**  
Juridikoa · Fiskala · Lanekoa · Kontularitza  
Askitasun 28, 1B 48143 Areatza  
Tfnoa. 94 673 92 93 Faxa. 94 673 92 82  
E-posta: gorbeialde@gorbeialde.com

**Gure Ikastetxeak**  
Arratiako Herri Ikastetxeak 2 urteik 18ra. Euskalduna, kalitatezkoa, herrikola

- Arratia BHI**  
Tel.: 94 673 62 37 Faxa: 94 673 62 37 Igorre
- Ikastola Arratia HI**  
Tel.: 94 673 90 45 Faxa: 94 673 90 45 Artea
- Zubialde HI**  
Tel.: 94 648 06 82 Faxa: 94 648 14 84 Zeberio
- I. Zubizarreta HI**  
Tel.: 94 673 60 22 Faxa: 94 673 60 22 Igorre
- Areatzako Herri Eskola**  
Tel.: 94 673 90 93 Faxa: 94 673 90 93 Areatza
- Zeanuri HI**  
Tel.: 94 673 93 33 Faxa: 94 673 93 33 Zeanuri
- J.B. Eguskiza Meabe HI**  
Tel.: 94 631 32 28 Faxa: 631 32 28 Lemoa
- Ugarana HI**  
Tel.: 94 631 55 32 Faxa: 94 631 92 11 Dima

Mour hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, Batxilergoak, Hezkuntza zikloak

**arratiako instalazioak s.l.**  
Berokuntza - Iturgintza - Gasa  
Aireztatzeko sistemak  
Aire zurgatze zentralizatua  
Suteak kontrolatzeko zerbitzuak eta mantentze lanak

Igorreko Industrialdea  
Fab. D7  
Tel. Fax. 94 673 62 76  
Tel. 619 736 516  
48140 Igorre Bizkaia

Bizkaifisios SLk  
bi zentro ditu  
**Fisioterapia Zentroa Igorre**  
Elexalde 4  
Telefonoa 94 631 55 08

**Andra Mari Klinika**  
Fisioterapia Zentroa  
Pontzi Zabala 1 Galdakao  
Tel/faxa 94 457 23 64

[www.bizkaifisios.com](http://www.bizkaifisios.com)

## ARKAITZ ARANA ETA GARAZI ELGEZABAL

**Andra probak Zeanurin maiatzaren 10 eta 15ean**

Andra proben taldea sortu barri da Zeanurin, Bizkaiko lehenengo taldea gainera. Makinatxo bat urtetan Arratiako probalekuetan, idiak, astoak zein gizonak ikusi doguz hara eta hona izerdi bitsetan, untzeak egin eta egin. Aurten ostera Zeanuriko sanisidroetan andrak izango dira harriari tiraka ibiliko diranak. Aurrerantzean be taldea osotu eta finkatu ezkerro, euren indarra eta ekina erakusten segiduteko prest ei dagoz. Entrenadore lanetan Arkaitz Arana dabil. Gehien trontzan espezializau dan arren, zeanurizarrak hamabost urtetik gora daroaz herri kirol munduan sartuta. Garazi Elgezabal ostera, taldeko neskarik gazteena da eta animoso sartu da erronka honetan.

**Irati Urien****Zer dira andra probak?**

**Arkaitz Arana:** Probak harriakaz probaderoan. Andra bat izan beharrean andra talde bat izaten da, zortzikoa. Harriagaz batetik bestera untzeak egin behar dira.

**Zer dala eta taldea Zeanurin?**

**A. A.:** Zeozer barria egiteko idea euki genduan Irati Astondoak eta biok Gabon aurrean. Bizkaia inguruan andra probarik sekula be ez dala egin eta berori egitea pentsau genduan. Holan ba, martiaren atzenetan hasi ginan eta 4-5 entrenamentu daroaguz.

**Badaukazue izenik?**

**Garazi Elgezabal:** Ez, momentuz Zeanuriko Andra Probak izena erabiliko dogu.

**Nortzuk zarie taldekideak?**

**A. A.:** Irati Astondoa, Belen Astondoa, Maite Etxebarria, Maite Artetxe, Garazi Elgezabal, Ainhoa Manterola, Goreti Astondoa, Onintze Zuluaga, Izaskun Intxaurre, Laura Ortiz, Nuria Bañuelos, Karnele Beobide... hamasei bat

dagoz taldean.

**Entrenadore beharretan osterara zu, Arkaitz.**

**A. A.:** Bai. Nik trasteak ekarten dodaz Gipuzkoatik, eta entrenadore moduan irakatsi zein lagundu egiten deutset.

**Taldeko gazteena zara Garazi. Zenbat urte daukazuz eta zelan animau zara honetan?**

**G. E.:** Bai, hamabost urte daukadaz. Astondoa etorri zan nigana esanez fuerte modukoa nazala eta animetako.

**Hasi baino egin ez bazara be, gustura hartutako ebaztiagaz?**

**G. E.:** Bai. Hasikera baten tiritukeran apur bat agobiantea zan; baina behin martxea hartuta, egin ahala gustau egiten jatzu.

**Zer da egin behar dana?**

**A. A.:** Normalean hamar edo hamabost minutuko saio bi egiten dira. Ordu laurdenean ahal danik eta untze gehien egin, gero etxon beste talde batek egiten dauan artean eta gero barriro beste ordu laurden egin.

**Dagoaneko hiru zita ipinita daukazue. Noz izango dira?**

**A. A.:** Bai. Lehenengoa maiatzaren 10ean izango da Zeanurin, Gure Esku Dago egunaren egitarau barruan eta bertan be egongo da Sorluzeko taldea. Bigarrena maiatzaren 15ean San Isidro egunean egingo dabe erakustaldia neskak. Eta hirugarrena maiatzaren 31n, Gipuzkoan. Atzenengo hau maiatzaren 10ean egingo danaren bueltea izango da. Sorluzeko neskak be oraintxe hasi barriak dira.

**Erakustaldian apostuak egingen dira?**

**A. A.:** Bai, baina hemen kiniek egingo doguz. Zenbat untze egingo dabezan ipini beharko da,

**Ikusmina sortuko**

**dau. Gauza barria da**

**Arratia inguruan eta**

**horrek jentea ekarriko**

**dau. Aste Nagusian ia**

**erakustaldia egingo**

**geunken galdetu dabe**

eta gehien hurreratuten danak eroango dau kinielea.

**Erantzun ona eukiko dau-lakoan zagoze?**

**A. A.:** Bai, ikusmina sortuko dau. Gauza barri bat da. Batzuk hasarre be badagoz idi probatan bikote bat kendu dalako, baina pentsetan dot Arratia inguruan gauza barria dala eta horrek jentea ekarriko daua. Bilbotik be enterau ei dira honetan hasi gara, eta Aste Nagusian ia erakustaldia egingo geunken galdetu dabe.

**Ezaugarriren bat euki behar da andra probak egin ahal izateko?**

**A. A.:** Gura dauanak egin daike. Ez da astokeria bat. Hankakaz indar asko egiten da, gorputzagaz be bai, baina hanketan indarra eukinda, apurtxo bat altuera euki ezkerro eta pisua be bai, nahikoa da. Gero txapelketetara konpetiduten joan ezkerro pisu baten barruan sartu behar da, ez dau balio fuerteenak hartzea.

**Ze inportantzia dauka koka-penak?**

**A. A.:** Aurrean normalean altuagoak ipinten dira, eta aurretik atzera apurtxo bat bajatuten joaten da altuera. Inportantea dan gauzetako bat harriari bueltea emoten jakitea da. Harria bueltauta itxi behar da.

**Zein da zure lekua Garazi?**

**G. E.:** Hasikera bigarren lerroan ipinten nintzan, baina aurrean entrenamentu bat egin eta gero orain hortxe ipinten naz, lehenengo lerroan.

**Zenbat kilo daukaz harriak?**

**A. A.:** Konpetiduteko bostehun kilokoa erabilten da, baina guk erabiliko dogunak 522 kilo daukaz.

**Ze erropa eroatea komenidu da?**

**A. A.:** Komodoenak praka elastikoak dira, laburrak zein luzeak baina sikaner estorburi egingo ez dabenak. Nikia tiranteduna ez, arnesagaz kalterako baino ez da izaten eta. Maiatzaren 10ean eta 31n Gure Esku Dagoko kamisetara eroango dogu, eta sanisidroetarako taldean komentau behar dogu danok kolore batekoa edo zein eroan ebazteko. Aurrerantza begira taldeak segiduten badau herriko kamiseta bat egingo geunke.

**Ze asmo daukazue etorkizunerako?**

**A. A.:** Zeanurin sikaner talde bat aurrerantza eroatea da asmoa. Honen ostean baten batzuk, nahiz eta zortzi barik sei bat edo bagagoz prest materiala egin beharko dogu. Izan be, lehen esan dodan moduan materiala Gipuzkoatik ekarten dogu, hangoak ixten deuskue.



**ZULAIBAR**  
ARRATIAKO LANBIDE IKASTEGIA



**BATZ 50**



lanbide

**TROKELGILE DOITZAILE IKASTAROA**  
(300 ordu + praktikak enpresan)

**IKASLEEN %60 KONTRATATZEKO KONPROMISOA**  
Langabetuentzat %100ean diruz lagundutako ikastaroak

**BALDINTZAK:**

- Goi mailako Zikloa Fabrikazio mekanikako produkzioaren programatzea, edo
- Goi mailako Zikloa Mekanizazio bidezko produkzioa, edo
- Makina-Erremintako Lanbide Heziketa II(FPII)
- Goi mailako zikloa mantenimendu industriala edo mekatronika industriala.

**Inskripzioa: 2015-05-15**

Informazioa:  
jonzabala@zulaibar.org  
Tfno: 946739116  
www.lanbide.net

**HEZKUNTZA ESKAINTZA:**

- Lanbide hastapena
- Elektrizitatea eta elektronika
- Haur hezkuntza
- Mekanizatua (goi eta erdi maila)
- Goi mailako sarbide proba prestatzeko ikastaroa
- Lanbide eta Hobetuz-eko ikastaroak
- **HEZIBI PROIEKTUAK → ZULAIBARREN IKASI ETA KONTRATUAREKIN LAN EGITEKO AUKERA**

**LANGILEENTZAT FORMAKUNTZA PERTSONALIZATUA**

[www.zulaibar.org](http://www.zulaibar.org)  
Tel.: 94 673 93 00  
e-mail: info@zulaibar.org

**ZULAIBARREKO ATEAK ZABALIK DAGOZ. ESKATU HITZORDUA**